EIDER RODRIGUEZ

Haragia

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2007 Eider Rodriguez
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2007ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Haragia

Nerea, Kepa eta Zigorri

«Eta denak berdin jarraitzen du,
hiriak, lagunek, itsasoak, zuen zain»

Ez dakit hondartzako haizeagatik edo hainbeste eme zimelgabe zabaldurik nigandik hain hurbil eta era berean hain urrun ikustearen frustrazioagatik ote den baina ikusmira honek balio dit, haragi gosea idazketaren bitartez asetzen dut. Hendaiako hondartza egunez sentimendu bat da, ezer ez den, inon ez dagoen, inor ez direnen herri hau. Ospitaleak, aireportuak, kontzentrazio esparruak eta Hendaiako hondartza. Argia edo itsas marruma baino gehiago zoko honetako mikromundua da nire bazka, gure herriaren ezkerretik zentrora bitarteko joera guztien mausoleo biziduna.

Hemen, eguzkipeko araztasun erabatekoan, askatu egiten naiz. Eguzkia horretarako baita ene iritziz: isilki erretzen zaitu, erregostearen txinpartak entzun ditzakezu belarria finduz gero, eta usaintxo hori, erretasun hori. Eguzkiak min ematen baitu, eta min horrek beste min guztiak estaltzen baititu.

Hondartzaren alde arrokatsua maite dut: historiak haitzetan egindako zuloetan kaioak pausatzen, horizontea oztopatzen duten Tonben nazimendu maiestatikoa. Homosexual deitzen diren horiek hartu dute egun alde hau, eta toalla zabaldu orduko ondoan etzango zaizu bular nerabeko ipurdi esturen bat. Nola nahi ere, neska freskoak ikusteko toki paregabea izan da beti, begi likatsuz eta eskukada bete hortzez «naturala da!» dela dioten horiei benetan probetxua ateratzekoa, ordainsari bakarra norberaren gordintasuna agerian uztea izanik. Ez da garesti.

Atzeraeraginezko memoriaren mirariak zer diren, egun hura gaurkoa balitz bezala ikus dezaket nire aurrean: goizeko hamarrak ziren eta eguzkiak erretzen zuen arren, jende gutxi zegoen hondartzan. Alde batean paristarren *falsetto*

ahotsak nituen arazo domestikoei buruz hizketan munduko ardatzen izaera ekonomikoaz ari direnen imintzioekin; bestean, bakarrik ez zegoela salatzen zuten bi oinetako pare behor gazte baten ondoan. Eguzkitako betaurrekoak sudur puntarantz lerrotu nituen argiago ikusteko: hogei bat urte, gorputzean adabaki zuririk gabekoa, beraz ez zen zona nudistara sentsazio berri bila etorria. Itsasertzetik Ulises gerturatu zen, neoprenoan bildurik, arpoia zakilduta. Leka erantzi zuen, tupustean, eta onartu beharra daukat haragi puska ederra zela morroi hura ere. Ile bustia astindu zuen neskaren gainean, eta titiburu harrituak irudikatu nituen gorpuzñoa zauritzen. Bezperan jaiotakoak ziruditen neska haren bularrek. Urrutiago, belarretan kasik, emakume zuri bat eta gizon beltz bat etzanda, hogeita hamar urte ingurukoak. Neska zurbila zen oso, eta krema geruza lodia zeukan aurpegian. Ile gorriak zituen, marrazki afrikarreko zapi batean jasorik. Gizona ukalondoetan bermaturik zegoen itsasoari begira, eta frantsesez bazekien arren, eztarritik hitz egiten zuen, kolpeka bezala. Neska ahuspez zegoen etzanda, burua eskuen gainean

pausaturik, betileak astinduz beltzaren isilune bakoitzean. Miresmenez entzuten zion, noizean behin ingurua barrandatuz. Ezin nuen elkarrizketa entzun, baina *Mon pays* ulertu nuen behin baina gehiagotan, eztarri beltzetik irtendako *Mon pays* urrun eta zurruna. Ilegorriak, beltzak hori esaten zuen aldiro izter ingurua igurzten zion gizonari, amatasunez, esango nuke. *Cassos* bat zela argi zegoen, *cas-social* bat hemen esaten duten bezala, izan ere horrelako koittadu batzuk ezagutu baititut nik ere bizitzan, eta baita haien gaixotasunaz profitatu ere, eta zerbait ikasi badut hauxe: larrutaldi horiek guztiek ez dute balio trukean eman beharreko laguntza psikologiko amiñi bakar bat ere. Lankideei kontatzen irudika nezakeen denda etniko batean erositako soinekoa jantzita «Ahmadou, Boli Kostan jaioa da eta duela bi urte heldu zen Frantziara, bere herria oso-oso gaizki dago eta abar eta abar», afrikarraren zakil pendularrak hipnotizaturiko hitz jarioa, emakumearen sasi-ezkertiartasuna, bere askapen femeninorako urtetako ahalegina gizon haren hipnosi gaitasunak birrindurik, zeinarentzako, normala denez bere herrian,

emakumeak etxola garbi izateko eta arrazaren biziraupena bermatzeko baino ez ziren. Horrelako zerbait idazten ari nintzen, axota papera urratu ahala berotuz, barruan daramadan irakurle txiki horren irribarre erdiak irudikatuz.

Filia berezia nirea, dudarik ez. Oraindik ezin dut ulertu zer dela eta onartu nuen lanbide hau. Maitasun beharra dela onartzea higuingarria zait. Eta zinez, ez dut uste hori dena. Sexutik hurbilago dago. Emakumeen barreak eragitea izan dut helburu urteetan, hasieran hizketaren bitartez, gero idazketak lagunduta. Denbora pasa ahala, helburuak lausotuz joan dira, eta barrea eragin beharraren ohitura gelditzen zait soilik. Baina hasierako helburua oroitu dut egunotan: haien hortzoiak agerian uzteko grina. Aho barruko haragi heze harekin bakarrik berotzen nintzen garai batean, aluaren irekiduraren iragarle. Eta egidazue kasu, ez dago tronpatzerik: hortzoi gorriminak alu freskoen salatari dira, eta marroixkak, tira, nahiago dut oroitzapen horiek alboratu.

Gizonkote bat su eske etorri zitzaidan. Eskaini nionean bere zakilburuarekin egin nuen topo,

eta gorago, bekain depilatuen azpiko begiratuarekin. Arrosa kapulu bat zirudien, eta nik ez ditut ez arrosak ez kapuluak maite. *Metxi*, esan zidan modaz pasatako hitza erabiliz. Zer gertatu zen ulertu nahian nabil eta ahalik eta zehatzen izan nahi dut kontakizunean, itxaroten baizik ez dakien txorimalo honetan bihurtu ninduen konbinazio kosmikoren baten bila. Orduan izan baitzen. Morroi haren apendizeak mehatxatuta sentitu nintzela eta, zahartzen hasia ote nintzen bururatu zitzaidan. Beso gorritzen hasia usaindu nuen, kremarik gabe ederki usain daitekeen lurrina, eta ura, pentsatu nuen, uretara noa. Bainujantzia jantzita abiatu nintzen. Pasaeran ahalik eta edertasun gehien ehizatzen saiatu nintzen, beti ere, pieza baten ostean begiratua hodeiertzera itzuli eta marinel begiratua antzeztuz, ez nuen kanpaia jotzera hurbildutako inuzente batekin nahastea nahi.

Esan gabe doa, itsasoaren lehen metroetan barneratzea baino gauza tamalgarriagorik ez dago, zaharren sexu soilduak, luzaketak egiten ari diren agureak, oraindik tripa zintzilik duten amak kumetxoekin, gazte maiztuak eta itsas-be-

larren setioa. Uretara sartu eta ahalik eta azkarren egin ohi dut igeri, arnasarik gabe gelditu arte, ahalik eta urrutien iritsi arte. Bodyboardinga egiten ari zen paristar horietako bat zela pentsatu nuen lehendabizi, baina haragi indarge hori guztia ito batena beste inorena ezin zen izan. Ez nuen deus sentitu haatik, deus ez. Besapeetatik hartu nuen, zazpi-zortzi urte izango zituen, mutil ihar bat, zuri-zuria, hotz-hotza. Betileak dardaraka ari ziren bi intsektu beltz. Nire bular gainean jarri eta kostaldera eraman nuen igerian. Biluzik zegoen. *Au secour* egin nuen oihu, *au secour!,* ni neu ere harrituta utzi nindu en lotsagabekeriaz, eta agure batek, bere soinketatik indarrez esnarazia, gerrian zeraman zorrotik sakelakoa atera eta aztoramenik gabe laguntza eskatu zuen. Nik, artean, besoetan nuen mutikoa hegaluze bat bailitzan. Bi CRS etorri ziren, mahuka motzean eta kasketarekin, walkietatik aginduak emanez bibote motxekoa, gugandik hiruzpalau metrora, hurbildu gabe. Ur ertzean etzanda jarri nuen, besarkada batean bildua neukan. Zainak ikusten zitzaizkion azal azpian, ezpainek basafruituak ziruditen, zakila ho-

tzak ezabaturik, ederra zegoen hilzorian. Medikua etorri zen gero, eta besoak itxi eta zabalduz, urrutiratzeko agindua eman zigun. Hurbildua zen baita ere bikote mestizoa, neska umeari xamurtasun tragiko batez begira, heriotza opatuz bezala, beltza itsasora *son pays* begien oroimenean. Eta jende gehiago, biluzik gehienak. CRSek, agindua betearazteko prestu eta alai, jendea sakabanatu zuten, baita ni ere.

Mutikoari betileak ikusten nizkion ahoz ahokoa egiten ziotela, hegan egin zezaten nahi nuen, beste ezer ez. Haizea eta kaioen karrakak baino ez ziren entzuten, walkie hotsa tarteka. Beldurturik nengoen, aitor dut. Emakumeek ahoa eskuaz estaltzen zuten eta gizonezkook aldaketan pausatzen genituen. Orduan eztul lehor bat, bi, ur txorrota ahotxo ubeletik, likido biketsu bat, jendearen hasperenak. Txalo apalen bat ere entzun zen (nahiz eta orain sinestezina iruditzen zaidan halakorik), eta jendea urrunduz joan zen gutxika-gutxika.

CRSa hurbildu zitzaidan, koaderno batekin, nire datuak behar zituen, eta galdera batzuk pausatu, esan zidan larritasun plantak egiten ari

zenaren plantak eginez. Ni nintzenetz aita. Orduantxe emakume bat heldu zen lasterka, garrasika, larrugorritan. Titiburu bioletak zituen, umearen gainera jaurti zen, haragi kilo haiek guztiak kreatura haren gainean jarriz, bere irekiduren lekuko eginez guri. Medikua hurbildu zitzaion, apur bat eszenak gainditurik nire irudikoz, eta besotik heldu zuen, «*Dégagez, laissez-le tranquile, madame*».

Beñat esan zion emakumeak, nafarra zen. Medikua, CRSak eta ni baino ez ginen gelditzen begira. Bibote motxekoak, amari oratu zion sorbaldatik eta ni izan nintzela esan zion atzamarraz. Emakumeak, pauso txiki lasterrez hurreratu eta indarrez besarkatu ninduen. Olatu bat nire oinetan hautsi zen istant hartan eta bitsa sentitu nuen oin bularretan, eta bera, haragi hura guztia nire kontra lehertuta, eta ni, eskuak non pausatu ez nekiela, henna usaineko bere ile xerloak sudurretan kiribilduta. Beñat izena du, esan zidan hondarretan zetzan mutiko zurbila seinalatuz, Eta ni Karmele naiz, esan zidan, bular bigunen sentsazioa sentimendu bilakatuta ordurako nire baitan. Bi muxu gehiago eman zizkidan Kar-

melek, gero, medikua hurbildu zitzaidan, segundo kontua izan zela ziurtatuz, harrotasunez, bostekoa luzatuz, eta emakumea zizpuruka hasi zen, eta umea lurretik altxa zen, gibela hondarreztaturik, aurrea ubel, eta edertasun aztoragarri moduko hori zuen, begi berdeak, kaioen zuritasuna azalean, ahoa gorritzen hasia, begiratu bat. Medikuak toallaz estali zuen, hari ere lizuna bailitzaion. Gizon honek bizitza salbatu dizu, esan zion amak, eta umeak ahots malkotuz eman zizkidan eskerrak. Begira gelditu zitzaizkidan ama-semeak, eskutik emanda, begiak taupaka.

Apur bat aztoraturik, puskak nituen tokira itzuli nintzen. Ez nekien zer egin, eguzkipean jarraitzeak zentzua galdu zuen. Geroz eta jende gehiago zegoen hondartzan eta Karmele eta Beñat ez nituen ikusten. Arropak jantzi eta hondartzatik alde egin nuen. Bikote mestizoaren ondotik igaro nintzenean beltzak ingurura bildutako tam-tam joleei buruzko zerbait esan zion neskari ezpain barruak agerian uzten zizkion frantsesean, eta honek gaiztoa ez izateko esan zion, gazte haiek Afrika maite zutela, *Ils aiment l'Afri-*

que ces jeunes! Ederki oroitzen dut, ez dakit zergatik, baina nahi gabe ere adierazpen zentzugabeenak oroitzen ditut urteetan. Petrilean, toalla mutur batez behatz arteko hondar aleak garbitu nituen eta galtzerdiak jantzi. Hurrengoan txankletak jantziko nituela esan nuen nire baitan, zapata barruko ezinegona gorputz osora zabalduri k. Hala izan zen, ordutik txankletak erabiltzen ditut, hori ere aldatu da. Apur bat ibili ostean, Karmele eta Beñat aurkitu nituen: hondarretan eserita zeuden, amak toallan bilduta zuen umea, ez zuten hitzik egiten eta itsasoari begira zeuden. Behatzetako hareagatik ez balitz ondo sentituko nintzatekeen, pentsatu nuen, eta autoranzko bidea egin nuen hondar aleekin nahastuz joan zen irudi hura begiratuaz helduz, askatzeko nahikoa adorerik gabe, ordurako haragi haren sentimenduak eztarria itotzen zidala.

Garai hartan, oposizioak prestatzen ari nintzen. Barazki deshidratatuzko zopez eta paniniz elikatzen nintzen. Beñatena gertatu zen egunean, Evek, bizilagunak, liposukzioa egitea deliberatu zuela eta, soberan izango zituen irabiatu energetiko guztiak ekarri zizkidan, horrela, otor-

duak laguntzeko zapore askotariko irabiatuak izango nituen. Evek, beti aurkitzen zuen ni ikustera etortzeko aitzakiaren bat. Eta beti etortzen zen txabusinaz jantzita. Onartu egin nituen eta oheratu egin ginen. Ez nuen inoiz berarekin hitz gehiegirik egiten, baina egun hartan, saioa gauzatu eta txabusinaren gerrikoaren bila ari ginela, gertatutakoa aipatu nion. Eve nire ohe azpia arakatzen ari zela kontatu nion, errapeen zanbuluari begira kontatu nion, eta berak, bederen, heroi izatea zer zen sentitu ahal izan nuela esan zidan. Gero muxu behartu bat eman zidan, ateratzerakoan ez zuen inoiz sartutako bera ematen.

Ordutik, egunero etortzen naiz. Itsasbazterretik pasieran ari den jendeari begira eman ditzaket orduak. Begiez harrapatu eta ez ditut askatzen hondartza amaierara heldu arte. Amaiera izaten da une gorena. Zain egoten naiz, zein mugimendu egingo ote duten buelta emateko, noiz erabakiko duten gelditzea amaiera hondar zati hori dela erabakita, eta batzuek orpoen gainean egingo dute bira, zirku mugimendu batez, edota parabola busti bat marraztuko dute hondarretan. Negargarria da. Are negargarriagoa ibiltaria ba-

karrik doanean. Batzuk arroketaraino ailegatzen dira, eta harria ukitzen dute esku ahurrez, beren buruari galdetu gabe zertan ari diren. Hondartzan pasieran ibiltzen direnentzako aukera dotore bakarra dago, eta badakit zertaz ari naizen: amaierara heldu denean, ibiltaria itsasoari begira jarri behar da apur batez, eta emeki, gordean, horizontearekin *tête à tête* egon ostean, orduan, orduan bakarrik, arrastoa desibili. Baina barka excursusa.

Beti izan ditut arazoak estetikarekin, agian hori da nire arazoa.

Beñatena gertatu eta gero ordea dena aldatu zen. Irakurle txikiaren hortzoiak agerian uzteko kemena galduta bizi nintzen, halako lukurreriak jota, sasoia galduta. Beñatena eta gero zain ematen nuen denbora eta oharrak hartu ordez poemak idazten nituen, hain ziren anakronikoak ni ere gazteturik sentitzen bainintzen. Karmele eta Beñaten zain egotea, beste ezer ez zitzaidan bururatzen.

Ebakuntza egin zuenetik beste norbaiti txirrina jotzen dion bizilagunaren hitzak gogoratu zaizkit gaur. Heroia, agian huraxe zen hitza.

Bi hilabete eta aste bat eman ditut petril honetatik begira, begiak azal-arrasean. Atzo iritsi zen eguna. Ibileragatik izan zen, ume lotsati batzuek izaten duten herren teatral hori, eskerrak ematera hurbildu zitzaidanean bezala, hain gordin eta zurbil. Atzo eguerditan izan zen eta atzetik jarraiki nintzaion. Ikusi bezain pronto hondarrera jauzi egin eta biluztu egin nintzen. Ur bazterrean esertzen ikusi nituen. Beñatek oskolak zerrendatu zituen, olatuek bitsez busti zioten bizkarra eta urezko fereka bakoitzarekin inarrosi zen. Hurbildu arteko segundoak inozokeriaz ibili nituen, umearen edertasunak harrapaturik, emakume loratuei sorgor, Beñat ttipia ikustea Karmele ikustearen ataria zenaren jakitun. Ondoan makurtu eta kaixo esan orduko etorri zen, hondarra zipriztinduz pauso bakoitzean, eta gu bion artean jarri zen. Besoetan hartu zuen mutikoa, eta lohia begitandu zitzaidan bien biluztasunen lotura, zain urdinak agerian zituen nakarezko jainko txikia gizon hari besarkaturik, flotazio marra litzatekeenaren gainetik. Beñatek, ahotsa malko-

turik egin zuen txio, «aita!». Gizona, umea estutuz, toallarantz joan zen, pauso bakoitzean atzera begiratuz. «Alde!», egin zidan eskuaz, «Ospa!» ostera. Beñati, nirekin akordatzen ote zen galdetzeko adorea bildu nuen, baina hitzak haizearekin katramilatu ziren. Uhinak oinetan hausten sentitu nituen, Beñaten begi gatzatuak niri begira, kokots zuria aitaren sorbalda errean bermaturik.

Bata bestearen ondoan jesarrita egon ziren luzaroan, toalla horizontal jarrita. Beñatek bi bider begiratu zuen honantza. Karmeleren arrastorik ez zen ageri.

Gaur argitaratu dituzte oposizioetarako emaitzak, liburuzain plaza atera dut. Niri Karmeleren haragiaren leherketak barnea hauspotzen dit oraindik, baina dena bere lekura itzuliko den itxura dauka.

Gaur ere ez dira etorri. Kaio asko dabil eta eguzkiak min egiten du. Bere bular bigunak dira gelditzen zaidan sentimendu bakarra, hori eta plaza hemendik hurbil egokitzeko ametsa.

Salgai

Proiekta ekoiztetxeko arduradunak, Markel Madinak, ez dio kontratua berrituko Miren Goenagari.

– Zure ordez –esan dio goizean– eskarmentu handiko mutil bat hartu dugu. Bartzelonan zaildua, bere kabuz jarduten ohitua... Froga bat izango da. Dena ondo badoa –begiratu ihesko-rra– ostera itzuliko zara lan-taldera.

– Ez didazue kontratua berrituko, hori esan nahi didazu, ezta?

– Baina zer diozu! Zu etxekoa zara, Miren, ez ezazu inoiz hori ahaztu. Inork ezin zaitu zure etxetik bota, aditzen? Eta gainera –irribarre–, senarrak egin dezala lana. Antigoaleko emakumeak bezala senti zaitez hiru hilabetez bederen, oporraldi moduko bat izango da, besterik ez, emakumea.

Mireni aberats berriek baino higuin handiagoa sortzen dion giza-talde bat badago: Markel Madina bezalako homosexual berriek osatutakoa.

Ekoizpen arduradunak homosexual berrien manerak ditu: inor baino modernoagoa, inor baino ausartagoa, inor baino atzelariagoa. Mahai gainean, iragan bizitza bateko seme-alaben erretratuak. Bera ordezkatzera etorriko den mutikoarekin mahai azpian olgetan ibiltzeko gogorik ote duen galdetu nahi izan dio Mirenek, baina semeak zer moduz dauden galdetu dio, «Zer moduz daramate aita atzelaria izatea?» aditzera ematea lortuz.

Markelek ere txikien argazkiari behatu dio:

– Inoiz baino hobeto.

Lehen aldia da Miren Goenagak lan arazo bat duena telebistan ari denetik. Berrogei urteak gorabehera, gurasoei, eta batez ere aitari, nola esan asmatu ezinean dabil, esaldiak josiz eta atzera askatuz, aldarteak entseatuz.

Kafe makinaren inguruan daude lankideak, komunetik entzuten ditu Mirenek. Wimbledon eta Tourra amaituta, oporrei buruzkoak dira elkarrizketak. Vietnamera joan behar duela dio Danik aitorpen doinuz, eta besteen asalduak

amaitutakoan, baimena eskatuz bezala, irribera, jarraitu du: «Iaz ez ginen inora joan, aizue!». Juan Carlosek, Egiptora joango direla, Marian Arte irakasle izan arren ez baititu oraindik piramideak ezagutzen. Korok, bero ez den tokiren batera joan nahiko lukeela: Islandiara edo Errusiara.

Hamaiketako hondarrak komun zulotik aienatzen ikusi ditu Mirenek. Ez die lankideei oturuntzarako hizketagairik oparitu nahi eta hurrengo astera arte itxarongo du kontratuari buruzkoak kontatzeko. Botaka egin ostean lasaiago sentitzen da beti, arinago.

– Islandian garesti dago tabakoa –gaztigatu diote Korori.

– Islandia zoragarria da, sumendiak eta izozmendiak borrokan.

Mirenek kolirioz freskatu ditu begiak ispilu aurrean. Zaila da jakiten zer ikusten duen bere begietara begiratzen duen emakume batek. Arnasa hartu eta gerrikoa koxka bat gehiago estutu du. Soslai jarri da, aldaketan eskuak, gero oin puntetan, eta oin puntetatik jaitsi ondoren berri-

ro oin puntetan. Hori guztia egin du, baina ez du inoiz asmatuko zer ikusi duen ispiluan.

Atearen bestaldean kalaka: bikinia, dieta, udako kantua, adina. Miren ernegatuta dago oporren gaia oraindik itzali ez dutelako, eta inork okerrik pentsatu aurretik, komunetik irten behar duela deliberatu du.

– Eta zuek, Miren, nora joateko asmoa duzue?

– Roberto lanpeturik dago –esan du kexati–. Besterik ez bada Parisera joango gara.

Lankideak ados: Paris beti da leku aproposa, udan ederragoa da... etb.

Miren Goenaga ez da bereziki ederra, baina aberatsen edertasuna dauka. Belaunaldiz belaunaldi, endogamiak emandako fruitua da: ile lixo gaztainkara, sudur txiki estua, hortz zuri zuzenak, pornografikoak izatera iristen ez diren ezpain mardulak, zango luze meharrak. Inoiz Robertorekin umerik izatekotan, ederra izango litzatekeela ziur zegoen. Donostiako Tenisean ibiltzen diren senar-emazte eta hauen seme-alaben

perfekzio dogmatikotik hurbil ibiliko litzateke inoiz jaioko balitz. Nahiz eta Miren ez den Tenisera itzuli igeriketa taldea utzi zuenetik.

Aita ETBko lehen zuzendaritza taldean aritu zen mokoka, gehiegi nabarmendu gabe. Egun, erretiroa hartuta, bonsaiak, ardoak eta hondartzako barandatik ikusten dituen neskatilak dira bere denborapasa ia bakarrak. Horretara ailegatu aurretik, eta alabaren etorkizuneko beharrez jabetuta, telebistan lana aurkitu zion orain bederatzi urte. Ordutik, lanik egin gabe aspertu egiten dela errepikatzen du Mirenek (o!, nik ez dakit lanik egin gabe egoten), taldekideen artean zisma sortzeraino: batzuek Miren bezalakoa izan nahi dute, besteek bera bezalakoak erail nahiko lituzkete.

Mirenen aitona kapitaina izan zen gerra garaian. Errepublikar baten biloba bertsolariak kazetari bati azaldu zion behin Goenaga kapitainarekin aitonak izandako enkontrua, nola hark zuloan sartzetik aske utzi zuen, bertso hunkigarria bota ziolako Donostiako Marinako komandantzian. Mirenek pasarte hura eta gehiago kontatzen zituen ahal zuen guztietan, aitona demokra-

tizatzeko, entzuleen baitan familiari buruzko irudi amultsua gordeta gelditukо zen segurtasuna izan arte.

Goenaga zaharrak Ulia auzoan seme-alaba bakoitzarentzat etxetxo bana utzi zituen, eta eraztun eta iduneko mordoxka. Gurasoengandik jasotako etxean bizi da Miren orain. Amarentzat urruti gelditzen zen auzunea (adinean gora egin ahala, garraio publikoan ibiltzearen pudorea areagotuz joan zitzaion) eta Arrasate kalean pisua erosi arte ez zion bakerik eman aitari.

Ostiral honetan, telebista saioaren azken programa grabatzearen aitzakiarekin, elkarrekin afaltzeko lotuak dira lankideak. Mirenek, ordea, zalantzak ditu hondoratu gabe eusteko gai izango ote den, eta nahiago du arriskurik ez hartu:

– Notariotzara joan beharra daukat. Ezin izan dut ordua aldatu, barkatuko didazue.

Lankideak pozik daude haien bizimodu apalen pizgarri den urtean behineko afariaren atarian. Gauerdirako etxean izango dira, edandako alkoholak horditurik baino haien bihurrikeriak

hanpaturik, eta agian amodioa egingo diete etxekoei oherakoan. Baina batez ere, hurrengo emisio denboraldian kafe makinaren bueltan maiztuko dituzten pasadizoetarako ematen dute afariok. Madinak ongi pasatzeko esan die: «Eta txintxoak izan». Modan dagoen jatetxera joatea atsegin dute. Haurrak urtebetetze festa batera nola, halaxe sartu dira denak Danielen ibilgailu berrian.

Mirenek abiatzen ikusi ditu, eta Miramongo tontorrean zigarroa erretzen ari den bitartean, bere etxea hiriaren geografian kokatu du. Hantxe behar du, puntu zuri ezdeus bat, puntu zuri ezdeus gehiagoren alboan, berdez inguraturik. Takoiak begiratu ditu, ondoren bere etxea den puntu txikiari erreparatu dio, eta bihozkada horri jarraituko diola erabaki du: oporrik ez izatearen ordainetan, zerbait erosiko du etxera bideko dendetan, koloretako poltsaz betetzeko logela. Ohea poltsaz beteta, hori baino irudi atseginagorik.

Lehenago, gazteagoa zenean, burutik pasatzen zitzaion edozer edonori edonon esateko eta egiteko gai zen. Urteek, baina batez ere estatu-

sak baretu egin dute Miren. Une gozoren bat konpartitzen dutenetan, Robertok, oraindik, bere zorakeria horrekin maitemindu zela gogorarazten dio.

Ezpainak kakaoz busti, eguzkitako betaurrekoak jantzi eta, bankeroen gisara poltsa besapean jarrita, Begiristain pasealekutik jaitsi da, ipurmasailak tenkatuz urrats bakoitzean, fitnessa utzi behar izanak sortutako amorrua apaldu nahian pauso gero eta arinagoez.

Zezen plazaren parera iritsi orduko izerditan da. Klinex batekin igurtzi du aurpegia. Makillajea ezabatu zaio eta benetakotasuna berreskuratu du.

Auto batetik klaxona, beste ekoiztetxe bateko jabea, aitaren adiskidea, beti sinpatia handiz tratatzen duen arren Mireni inoiz lanik eskaini ez diona. Eskua kasketa moduan jarrita, hodeiertzera begiratu du. Hobe du gizonaren autora, lan eskaintzak ezin baitira inoiz aurreikusi.

– Matxuratu egin al zaizu autoa?

– Bai, ez dakit zer duen.

Mirenek zangoak zabaldu ditu diskrezioz.

– Zer moduz aitona?

– Bihar egingo diot bisita, larunbatero joaten naiz.

– Eta aita?

– Beti bezala, nirekin pixka bat petralduta, badakizu.

– Umerik ekartzen ez duzulako...

– Horri buruz ere hitz egin izan duzue orduan?

– Goraintziak emaizkiozu.

Askatasunaren hiribidean jaitsi da Miren.

– Goraintziak Albertori ere, hilabeteak dira ikusi ez dudala.

– Beharbada igandean joango da zaldi karreretara.

Miren aspaldi ohartuta dago jendea ez dela inoiz Robertoren izenarekin oroitzen.

Gizon-emakumeak behatzen ditu pasatzen, alde batera eta bestera, pendulu bat hipnotizatzailearen eskuetan nola, batera eta bestera. Barne lasaitasun sakon moduko bat sentitzen du, urteak dira horrela sentitzen ez dena.

Cristina dendara sartu da. Lur koloreko jakatraje bat erosi du, Escada markakoa.

Irten bezain pronto poltsa zabaldu eta zetazko paperean bilduta ikusi du jantzia. Hots gustagarri bat egiten du hatza gainetik lerratzean. Etxean, sortzen dioten kitzikaduraren arabera mailakatu eta gero, zabalduko ditu paketeak. Ispilu aurrean jantziko ditu ondoren, kilimak gorputza zeharkatzen. Handik denbora gutxira mustuko ditu, aldez aurretik ongi aukeratutako egunean (igande eguerdiek lehentasuna dute). Eta berriro jantziko ditu egun batzuen buruan, konbinazio berriak sortuz. Erostearen zirrara ez baita erosketarekin ahitzen, eta zorioneko sentitzen da ekintza finigaitz horretan pentsatuz.

Auzmendin festa doinuz agurtu du saltzaileak. Berritu egin dute denda, eta orain lehen baino beldur handiagoa ematen du bertara sartzeak, hain da zuria eta urruna guztia.

Loewe eskuko poltsa bat aukeratu du eta dendariak beherapena duela argitu dio (o!, ez naiz ohartu).

Versace gerriko bat, larruzkoa, ainguratxo urreztatuekin.

Miriam Ocarizen brusa bat, Amaia Arzuagaren beste bat.

Benegas lurrin-dendan La Prairie etxeko kutxa: aurpegirako hiru krema (*skin caviar*), begizuloetarako beste bat, xaboia, tonifikatzailea. Azken unean, Givenchyren *L'interdit.*

Tousen, urregorrizko belarritako parea, 70eko bildumakoa.

Poltsetako sokek min gozoa egiten diote esku ahurretan.

Eguzkitarako betaurrekoak, Lacoste.

Belusezko buruko bat, lumatxoekin.

Arbelaitzen, txarolezko eskularruak, Burberry.

Zetazko zapi bat, Gianfranco Ferre.

Zapata ertzean ateratzen zaion juanikoteak lotsarazi egin du, eta hala ere Marc Jacobs zapata pare bat, eta badaezpada Fendi etxeko botak.

Egarri da. Errepidea gurutzatuta, Avenida XXI tabernan sartu da. Taburetea talaia hartuta, kolore eta materia askotariko poltsek osatutako espektakuluari so gelditu da, bakoitzaren barruan mundu misteriotsu bat. Tonika eskatu du eta bi pintxo jan ditu. Tabernariari poltsak une batez zaintzeko eskatu dio. Komunean, eraztunak erantzi eta hatzekin eztarriko kanpaitxoa jo du.

Goitika egin du berehala, eta hortzak eta mingaina garbitu ditu hortz eskuila tolesgarri batekin. Anorexia duten neskato gajoekin pentsatu du. Batzuetan iruditzen zaio, goitika egin ondoren normalean, neskato horietako batzuekin hitz egin beharko lukeela, eta azaldu, nahi adina jan daitekeela goitika ganoraz eta diziplinaz egiten ikasiz gero. Baina horrelako gauzak pentsatzen dituenean tupperwareak etxez etxe saltzen dituzten emakumeen tankera hartzen dio bere buruari, eta amaren antz gero eta handiagoa duela ohartzen da, edozein unetan karitatera lerratzeko joera laño horrekin. Ezpainak pintatu ditu, kolirioa ipini du eta, maindire zurian tinta tanta nola, hedatu zaizkio begi-niniak.

Etxeraino falta zaizkion bi kilometroei gozo itxura hartu die.

Urumeako zubia zeharkatu eta Sekundino Esnaolan gora egin du. Minbera ditu eskuak, mina eta izerdia nahasturik.

Ehun eta berrogeita zazpi eskailera igo behar ditu Uliara iritsi aurretik. Hatsanka doa, eta hiru maldaren faltan, oinutsik jarri den unean, 4x4 bat gelditu da bide bazterrean. Ignacio bizilagu-

na da, Parke Teknologikoko enpresa bateko gerentea. Oinetakoak eskuan, Mercedesaren atea zabaldu du eta larru usainetan ikusi du zaharra: koadrozko alkandora, sanpankrazioa.

Bata bestearen gordintasuna ezagututakoak dira, eta ordutik beharrezkoak diren gezurrak baino ez dizkiote esaten elkarri. Mirenen etxe atarian gelditu du autoa.

– Robertok nahi izatera, lan bat eskainiko nioke.

Ignacioren aurrean espumazko kanape batean eserita bezala sentitzen da Miren.

– Ez da aspertzen, egon lasai; etxean lan batzuk egiten dabil.

Poltsei begira gelditu da gizona.

– Zure urteak al dira?

– Ez, kapritxo batzuk besterik ez dira. Abenduan betetzen ditut.

Urrundu egin da Mercedesa.

Sastrakak jana dago lorategia izandakoa. Ipotx bati sudurra eta beste bati txanoa falta zaizkie. Hondartzarako mahai tolesgarri batean garagar-

do latekin egindako piramide bat, eta atzean Roberto. Ogi muskin bat eta txorizo mutur bat. Lainoturik dagoen arren, eguzkitarako betaurrekoak ditu jantzirik. Hoztu duen arren, bainujantzia baino ez darama soinean.

Mirenek poltsakada batez eraitsi du latazko eraikina. Orduantxe esnatu da senarra.

– Shopping! Niretzat zerbait erosi al duzu?

Miren logelara igo da, eta dutxaren ostean kremak eta Arzuagaren brusa jarri ditu. Luxu hotsa zabaldu da logelan paketea desegitean.

Daniri deitu dio, haiekin elkartzeko garaiz ote dabilen. Danik bere zain daudela erantzun dio, eta telefonoa lankideei pasa die berak esandakoa berretsi dezaten.

– Banengoen ni azkenean animatuko zinela!

Sukaldean garagardo bat hustu du. Robertok azuleju batekin besoan egindako ebakia erakutsi dio eta Mirenek whiskian bustitako ahozapi batekin igurtzi dio.

– Lanak amaitzear daude, maitea –besoari oratuta etxearen atzealdera eraman du Miren.

Robertok eskua luzatu dio, eta Mirenek, 50 euroko bat aterata, bainujantziaren gerrian zintzilikatu dio.

– Lan elkarrizketa baterako deitu didate garraio enpresa batetik.

Se vende dioen afixak diz-diz egiten du ilunabar gorrian. Zozo bi zaborrean ari dira mokoka. Mirenek behazuna sentitu du mingain azpian Goenagatarrenak izateari utziko dieten lurrei begiratzean. Robertok betaurrekoak jantzi ditu berriro eta zakila atera du sastraka artean pixa egiteko.

– Kamioia gidatzeko karneta ordainduko bazenit...

Txorrotadak lata baten kontra egindako zarata atzean utzita alde egin du Mirenek, gerrikoa koxka bat gehiago estutu ondoren.

Erle begiak

– Isuna jarri aurretik alde egin behar dut –esan du Anderrek, eta autoko giltzak atera ditu presaren erakusgarri.

– Bi hilabete baino ez dira izango.

– Bi hilabete eta ozeano bat.

Maletak hesi lanak egiten ditu eta muxu lehor bat eman diote elkarri. Hitz hanpaturik ez. Abiatzen ikusi du eta Buenos Airesen egin beharreko lanak errepasatu ditu mentalki, profesional onak ez dira aireportuetan negar malkotan urtzen. Hegazkinean, lo egiteko pilula bat hartu du, komunean negar malko batzuk isuri ditu, eta lur hartzearekin esnatu da. Aduana igarotzeko zain dagoela, atzean duen gizona hizketan hasi zaio:

– Utzidazu aholku bat ematen, neska, zintzo aurpegia duzu eta: taxilariek ez zaitzatela hiritik paseatu.

Neskak, eskerrak eman dizkio, ohitua dagoela bidaiatzera, lasai egoteko, baina aldi berean, Ander apur bat gurasoago izatea hartu du faltan, hainbeste errealitateren erdian.

– Zorte on! –egin dio garrasi gizonak aduana igarotzean, ordurako beste norbaitekin hizketan.

Kanpoan, bero kolpe batek hartu du, ilargia eta eguzkia zeru ubelean. Ikusi duen lehen taxilariarengana hurbildu da:

– Chacabuco y Garay –eta zalantzaren dardara irentsi du kaleen izenak errepikatzean.

Taxilariak maleta hartzeko imintzioa egin du galaitasun anakroniko batez, urrezko saindu eta birjinak bular iletsuaren erdian katramilatuta, galtzak gerriari ongi hertsaturik.

– Ez duzu maleta kapotan sartu nahi, ume?

– Ez da behar –maletari aingurari bezala loturik neska.

– Brasildik joatea nahi duzu?

– Bide motzenetik.

– Ordu honetan buxadurak ohikoak dira. Horregatik, Caserosetik ere joan gaitezke, baina ordu txarra da.

– Karruseletan ibiltzeko garaia joan zait –neskak axolagabe planta egin du, ez dakion igarri kale kartografiaren inguruko ezjakintasuna.

– Pasieran ibiliko zaitudan beldur zara, ume?

Ispiluak lapurtuta ikusi dizkio lehen aldiz begiak taxilariari, eta bi aldiz behatu behar izan du ulertzeko: urre kolorekoak ditu.

– Atzerritarra zara?

– Bai –neskak gogo txarrez erantzun dio, atzeko eserlekutik gizonaren laka usaindu dezake. Eta arrek emeen edergailuak erabiltzea nola justifikatzen ote duten galdera etorri zaio.

– Galegoa?

– Euskalduna.

– Euskalduna esatean espainola ez zarela argi utzi nahi duzu.

Neskak ezin ditu Atlantikoaren neurriak burutik kendu.

– Nongoa, Bilbao?

– *De Rentería, cerquita de San Sebastián* –erantzun dio hiri ilunabartzen hasiari begira, Anderren azken hitzetan atrapaturik, laneko txostenak belaunen gainean zabaldu gabe. Unaturik da.

– Nire arbasoak ere euskaldunak dira.

Neskatoa orduantxe hondoratu da zigarroek pipitutako eserlekuan, bat-bateko erosotasuna sentituz, sinpatia epidermiko bat.

–Euskaldunak? –askapen nazionalerako gogo guztia galderan jarriz. Oso unaturik da, eta sinpatikoa den edonorekin bizitza konpartitzeko gogoa du.

– Aita Bermeokoa, mende hasieran etorria. Ama frantsesa, herrixka batekoa, hemen ezagutu zuten elkar.

Farolak igaro dira taxi bazterretik. Alfajoreak saltzen dituen mukizu bat, euriak herdoildutako hesi belartsuak.

Eta irribarre bihurtzen joan zaio aurpegiko haragia neskari, hiriko farolen erritmora kliskatzen diren taxilariaren begiei entzuten, haurridetasun primitibo batek lagunduta.

– Amorrortu Etchechury Anchorena Garat –taxistak abizen bakoitza ondo ahoskatu du, poliki, titulu nobiliarioa balitz bezala.

– Zinez euskalduna.

– Oso gaztetan etorri zen aita, abentura bila. Negozio bat jarri zuen, arraina garraiatzeko kamioi enpresa bat –ispilutik kulunka kartoizko saindu bat diapasoiaren modura hiriaren ilunerako bilakaera neurtzen–. Ezkonduta zaude edo bakarrik?

Neskak ugertu den malguki bat sentitu du gorputzean nonbait, ikasitako erantzun baten zentzugabekeria. Eta deliberatu du diskurtso feminista baztertzea, azken finean, Amerika Amerika da, zer arraio, eta zaharra da taxilaria, arbaso euskaldunekoa gainera.

– *Solita* –esan dio eta liberazio moduko bat sentitu du hitza ahoskatzerakoan, eta errepikatu du, enkas, ez daki-eta noiz esango duen horrelakorik berriz–: *Solita* –diskurtso politikorik gabeko ahuldadea, menpekotasunaren rol historikoa, bakarrik egotearen beldurra, bizitzan lehen aldiz askatasun osoz adierazirik.

– Zu bezalako neska polit bat halako hiri handian ibiltzea ez da ona. Senarra bilatu beharko zenuke.

– Agian bai –erantzun dio apur bat ez mintzearren, apur bat lehenengo aldiz ohartuta, agian baietz, senarra bilatzea ez litzatekeela txarra, eta eskola espainolera uniformez zihoazen neskatxa titi handien manerak imitatu ditu, trentza estutuz eta ahoa erdi irekiz.

– Gizonik gabe ez duzu emakume oso izatea lortuko, garbi eduki.

Neskak, taxilariaren arkeria ñabardura antropologiko bezala hartu du, eta sorbaldak jaso ditu, taxilariaren mundu ikuskerara plegaturik:

– Euskalduntzat duzu zure burua?

Barre egin dute taxilariaren erleek.

– Borges irakurri duzu? –galdetu dio gizonak–. Borgesek zioen odolak agintzen duela... Nik pausatuko dizut galdera beraz: katu baten kumeak okindegi bateko labean jaioz gero zer dira, katutxoak edo opiltxoak?

– Katutxo bat zara beraz.

– Katutxo bat naiz, egiaz –eta eskua bolantetik askatuz atzaparkada felino bat imitatu du airean.

– Borges gustatzen zaizu? –neskak nonbait irakurri berri du emakume orok desio duela faxista bat eta ezin ukatuzko esaldia iruditu zaio bat-batean.

– Nola ez ba, Borges handia. Chacabuco y Garaytik gertu bada Lezama deituriko parke bat, Borgesen eszenatoki izan da maiz –erleak ispiluaren ezker kantoiekin talka.

– Euskaldunak ez gintuen gehiegi maite.

– Borges handia zen...

– Beltzek bederen esklabo izateko balio zutela esan zuen behin, euskaldunak horretarako ere ez...

– Hori ez, ez iezadazu konparatu euskaldun bat beltz batekin, hori bai ezetz, ume. Galego batekin tira, baina beltz batekin? Hori bai ezetz –eta bolantekada batez pasa du izkina, eta marihuana erretzen ari den haur baten begi zuriak ikusi ahal izan dira iluntasunean–. Txutxumutxuak, ez dira besterik.

– Denbora asko daramazu taxiarekin lanean? –egin du neskak itaun, Borgesek giroa gehiago petraldu aurretik, lehenago da aberkideekiko errespetua eztabaida literarioa baino.

– 2001etik. Bioteknologian egiten nuen lan lehen, baina pikutara joan zen enpresa, badakizu.

Semaforo baten azpian, errepidearen erdian, ume bat malabarrak ari da egiten.

– Argentinaren bizitza zikloa krisialdiek markatzen dute. Askok pentsatzen dutenaren kontra, krisialdiek ekonomian baino gehiago, etikan dute eragina. Argentinarrek krisi etikoa bizi dute, eta hori ez du inongo presidentek konponduko,

ez horixe –ikastetxeko uniformearekin jantzitako nerabe bi seinalatu ditu, suediar itxurako hiru gizonekin flirteatzen.

– Ez da xamurra.

Taxilariak zerbait ulertezina esan eta abiada bizkortu du.

– Ohituta gaude, badakizu, bizimodua atera behar... Ez gara aspertzen bederen. Zuek, europarrak, zeuona bai bizimodu tristea! –eta irri karkaila tabakoz kargaturiko batean lehertu da, umorea berreskuratuz–. Eta esadazu egia orduan, oporretan etorri zara ala senar bila?

Neskari senar hitza gustatu zaio bat-batean, taxiaren intimotasunean, *senar*, lasaitasun eta naturaltasunez erabiltzen du taxilariak, aguakate edo autobus edo katilu bezala, ezer txarra atzean izango ez balu bezala senar hitzak.

– Lanera etorri naiz. Baina senarra aurkituz gero, senar ona, ez diot muzin egingo –neska, inoiz jokatu ez duen eta akaso inoiz jokatuko ez duen rolean uste baino erosoago dago, kitzikadura sentitzen du izan zitekeen emakume horretan larrualdatuta.

– Lana! Senar dirudun bat hartu, ume! –taxilariaren erleek jauzi egin dute ispilutik neskaren bularrek osatutako pitzaduraraino, eta neskak erleen hegaldi hotsa entzun izan du kasik papar aldean–. Zuek, emakumeak, hainbeste urte borrokan, zertarako eta lana egiteko!

Beste askotan entzundako esaldi horri barre txiki bat eskaini dio neskak lehen aldiz.

– Ez, ez, ez. Emakume polita zara. Horixe egin behar zenuke, senarra ondo zaindu eta hortik aurrera nahi duzuna!

Hasperen egin du neskak eta taxiaren leiar zikinean ikusi du bere aurrealde hanpatua, eta taxilariak ikustea nahi izan du, berriro bere erleen hegaldia sentitu, mantenduko duen senar on bat merezi duen neska ederra dela sinestea gustuko izan du, Anderrengandik urrun, ideologiei arrotz. Neska galdu bat kontinente ezezagun batean besterik ez da, arraioa.

– Zuk ez al duzu seme aberatsik nirekin esposatzeko?

Taxilariak muturra zimurtu eta kopetako izerdia guanteratik ateratako trapuaz sikatu du:

– Ez zenuke horrela hitz egin beharko, ume.

– Neska europarrok horrela hitz egiten ohituta gaude –neskak barkamena eskatzeko beharra sentitu du.

– Horrela ez duzu senar dirudunik aurkituko.

– Agian arrazoi duzu.

– Nahiz eta polita izan. Baina, hori ez da nahikoa, egoten jakin behar da, emakume batek egunez dama izan behar du eta gauez puta, halaxe zioen gure aita zenak, eta halaxe diot nik.

– Arrazoi duzu –eta neska eroso sentitu da berriro, mojen kolegioetara joaten zirenen mainak errepikatu ditu, gauza itsusi bat esan duenaren damu imintzioa.

– Zu ez zara horietakoa.

– Zergatik diozu hori?

– Jokatzen ari zaren rolaz ari naiz, igarri zaizu ez zarela horrelakoa.

– Barkatu?

Parking batetik emakume handi bat irten da, string soil bat jantzirik, bular gizenak airean, ipurdi biluzia ferekatzen diote mototsaren amaierako adatsek.

– Ikusi hori, autoaz zapaltzeko grina sentitzen dut hemendik pasatzen naizen aldiro.

Neskak, bota garaietan igota funanbulista dirudien emakumeari begiratu dio, eta autoak zapalduta irudikatu du, takoi abandonatua, odola beltzaren gainean, taxilaria zigarro bat izekiz eta abiadura bizkortuz.

Gizonak abiadura bizkortu du.

– Hau ere Buenos Aires da.

Eta puta gehiago, denak bularrak airean eta zutik atxikitzeko manera lauso hori. Urdanga talde bati argi kliskada bat egin dio aurreko faroekin taxilariak.

– Esan zidaten hirigunetik gertu zegoela.

– Jendeak hitz egitea maite du.

– Iristeko asko falta al da?

– Ez al zara fio, katutxo?

Usina zahar baten atzean gelditu du autoa eta neskak leiarretik begiratu orduko ondoko eserlekua atzera bota du mugimendu azkar batez taxilariak. Narrasean, libre gelditutako atze guztia bete du taxilariak bere gorputzarekin. Ahoa estali dio. Eraztunak senti ditzake hortzen kontra. Erleak begietatik atera zaizkio eta neskak imintzioak egin ditu lepo ingurutik, bula-

rretatik, sabeletik uxatzeko, gizonaren begi orain beltzei garrasika.

Gero, ziztada bat, erle lodi batena, oinazea eta taximetroaren tik-taka.

Amaitutakoan autotik bota du.

– Egunez dama izateko asko ikasi beharra daukazu oraindik.

Golf ondoko etxea

Landerri

– Pilotek 200 kilometro orduko abiaduran egiten dute talka. Ikusi hormetako konkorrak –esan du Anjelek.

ETBko kamerariak hormako irudiak hartu ditu, Anjelek hitz jarioarekin jarraitu bitartean, kazetaria laguna izango balu bezala. Terraza zedarritzen duen sarea seinalatu dio:

– Begira horri, bi metro eta erdiko sarea. Oilategi bat dirudi, zoo bat. Baina berdin dio, pilotek sarea gainditzen dute, 200 kilometro orduko. Zuk badakizu zer den hori?

Irribarre egin dio kazetariari: zuk ulertzen duzu, zuk nire ardurarekin bat egiten duzu, zuk badakizu 700.000 euro balio duen etxe bateko terrazara ezin irtetea zer den.

Kazetariak sarea grabatzeko keinua egin dio kamerariari.

– Eguneroko estres hau! Terrazara irteteko beti beldur! Nire emaztea ez da terrazara irten

ekainetik, pilota batek kristala apurtu zuenetik, ulertzen?

– Noiz jarri zenuten salaketa?

– Iazko uztailaren hasieran.

– Eta zer esan dizue epaitegiak?

– Ez dugu erantzunik jaso.

– Baina zein uste duzue izango dela ebazpena?

Anjelek barre egin du, elkarteko afari batean balego bezala barre egiten saiatu da.

– Begira, hemen, enpresa eraikitzaileaz gain Udala ere sartzen da jokoan, eta hor trapu zikin asko dago, mokadu ederrak tartean. Denok dakigu zer den etxebizitza politika, are gehiago PSOE muturra sartuta dagoenean –eta ukabilarekin esku ahurra jo du bi bider.

Kazetariak koadernoa itxi du. Gizonaren izenabizenak baino ez ditu idatzi: Anjel Etxarte (ondoan hiruzpalau kaligrafia ezberdinez ere ipini du). Eta amaitu da zure denbora, iradoki dio bekainak altxatuz, eta orratz baten norabidea zuzendu du ile kirruetan.

– Bihar gaueko albistegian ipiniko dugu, zortzi eta erdietan ETB-1ean eta bederatzietan ETB-2an.

– Ez dituzue pilotak grabatu. Atzeko patioan daude. 250 inguru jaso ditugu zelaia zabaldu zutenetik.

Umeen jostailuak gordetzeko diren plastikozko kaxa batean ehunka pilota daude: zuriak, beixak, laranjak, horiak.

Sukaldeko mahai gainean jarrita dagoen emakumeak Anjel eta kameraria pasatzen ikusi ditu, baina mahai gainean jarrita jarraitu du, hortzekin azkazal inguruko axalak erauzten.

Kamerariak lehen planoan grabatu ditu golf pilotak. Zoom out bat jarraian, eta kazetariari keinu egin dio amaitu duela esateko. Badirudi ETBk galarazita diela kazetari eta kamerariei hitzez komunikatzea.

– Mila esker. Orain bai, amaitu dugu.

– Zerbait nahi? Zerbeza, kafea, freskagarriren bat?

Anjelek ateraino lagundu ditu eta motor hotsa entzun arte lorategian gelditu da.

Ederra da zelaia hesitik hara.

– Ez dut uste haiekin nahastu behar dugunik.

– Baietz ba, putakume horrek bista ona zaukak gauza hauetarako. Ez haiz konturatu zer-nolako judu aurpegia daukan?

– Egoera dagoen bezala egonda ez naiz fio.

– Auditoria batekin konpon daitekek hori. Horrela ikusiko diagu zenbat B dagoen, eta horren arabera erabakiko diagu.

– Ez da nahikoa. Ez dituzu egunkariak irakurtzen?

– Ausardia falta zaigula uste diat, Jabier.

– Ez dut Indiana Jones izan nahi.

– Tratu ona duk. Egidak kasu behingoz. Hire zaharra baino okerragoa haiz.

– Askoz ere okerragoa.

– Gaurko partida irabazten duenak erabakiko dik fusioa egin ala ez. Ados?

– Ez, ez nago ados.

– Tira, hire txanda duk.

Pilotak zaldi buru, txori kaiolatu, kafegailu eta vikingo formako hodeiak zeharkatu ditu eta

muino baten erdian gelditu da, bakar eta zuri, berdearen erdian.

Anjel eta Aneren etxea argitsua izan zitekeen errezelak zabalik izango balitu. Anek ordea nahiago du itzala. Begi sentiberak dituela esaten dio Anjeli, argitasunak min ematen diola. Baina ez da horregatik errezelak itxita maite dituela, ez du nahi mundua leihoetatik sar dakion.

Beheko solairuan egongela zabal bat dute, lur kolorez pintatutako hormak eta gereziondoz egindako altzariak. Komuna, eta krema koloreko sukaldea. Bikote orekatu baten etxea da, dekorazio aldizkarietan «lanbide liberala» duen berrogei urte inguruko bikote batena. «Giro rustikoa eta funtzionalitatea batzea lortu dute Irungo (*País Vasco*) duplex abegikor honetan» idatziko lukete. Baina dekorazio aldizkarietan errezelak beti irekita izaten dira, eta jabeak igande goizetako aurpegierarekin agertzen dira, maitasun saiotik jaiki ostean, elkarrekin laranja ura gosaltzeko aldartearekin, juxtu umeen zalaparta hasi baino lehen.

Ane alfonbrako pilotatxoak kentzen ari da Carrefourren erosi berri duen tresna batekin. Bere azken jostailua da. Belauniko dago, makinatxo elektrikoa behin eta berriz pasaz alfonbra gainetik. Badirudi kotxe batekin jostatzen ari dela, belauniko lurrean, txandal horrekin, nerabe bat. Alfonbraren gainean lauburuak tailaturik dituen kutxa mahai gisa. Egongelako horma bat liburuz estalia: Gerra Zibilaren entziklopedia, Zumetaren mihise bat apal biren artean, literatura horitua.

Anek ez dio elkarrizketari buruz deus galdetu.

– Amaitu dugu. Bihar gaueko albistegian emango dute. Cereceda putakume horrek ikustea espero dut –Anjelek ohi duena baino ozenago hitz egin behar du bolatxoak erauzteko makinatxoak ahotsa estal ez diezaion–. Luze egon dira, ezta?

– Luze, bai –erantzun dio maitekiro–. Labean dago bazkaria.

– Lasagna egin duzu?

– Konjelatua da. Ondo orduan elkarrizketa? –esan du Anek amets gozo batetik esnatu berria

bailitzan, eta ileko goma ezpain artean ipinita berregin du mototsa.

– Interesgarria iruditu zaie. Patioko pilotak ere grabatu dituzte, eta hormetako konkorrak. Ikusiko du urde horrek. Zergatik ez zara irten, maitea?

Hiru hilabete dira ez dudala Anjel biluzik ikusi. Bizilagunek ikusiko zaituzte, esaten nion dutxatik irten eta etxetik paseatzen zenean. Gabonetan albornoza oparitu nion, nahiz eta Anjelek ez zuen ordura arte inoiz albornozik jantzi.

Egunotara arte ez nion sekula nire buruari aitortu higuina ematen didala bere siesta zaporedun ahoak, tabakoak horitutako bibote muturrak.

Logelan albornozarekin agertu denean plazera sentitu dut. Gaur gauean nirea ez den ohean egingo dut lo, nirea ez den pijamarekin. Horrek guztiak lasaitu egiten nau.

– Orain ez duzu albornoza kentzen.

– Ohitu naiz, egia esan.

– Ondo ematen dizu –esan diot.

Anjelek kolutorioz beteriko masailekin baietz esan dit, hamster bihurturiko gizonak, beti baietz. Eta bere zorion txoro hori, dena okupatzen duten kezka inozoak. Galtzontziloak jarrita nahiago izango nuke, dilinda eta kozkorrak ebitatzeko, baina Anjel bera ohartzea nahi nuke, ez diot nik esan nahi. Hobe horrela, errazago horrela. Errazago dilinda eta kozkorrekin. Etxeko bazterrak begiratu eta habe, harri biluzi, ehun fin bilakaturiko plusbalia behatzen dut. Argazkiak eta folklorea. Baionan bizi ginenean Txomin Iturberen ondoan hartutako argazkia, Arrueren estanpa, berriztatutako lanabes herdoilduak, gazte errepublikarrei gerra egitera dei egiten dien afixa, eguzkilore idorra. Hori eta entziklopediari hautsa astintzea izan da azken urteotako gure konpromiso politikoa.

Eztia da burukien azpian gordeta dudan nezeserraren kremallera laztantzea, hemendik aurrera berriro ere depilatuko ditudan bekainentzako pintza, betzuloak kamuflatzeko krema, ezpainak edertzeko margoak, ohe gainean eserita, Anjelekin hizketan ari naizen bitartean.

– Amodioa egiteko gogoa daukat, Anjel.

Tixerta erantzi dut, kiroldegiko aldagelan banengo bezala, neskatila eta atsoz inguratuta. Anjelek kolutorioaren azken arrastoak garbitu eta hamster aurpegia konketa zuloan hustuta etorri zait, ezpainak oraindik apur bat gorriturik. Bularretakoari begira gelditu da, gero begietara, gero bularretakora, begietara.

– Pozten naiz, Ane.

– Pozik zaude?

– Pozik nago nirekin amodioa egiteko gogoa duzulako.

– Ni ere pozik orduan.

Anjelek olentzero irribarrea egin dit. Bularretakoari begira gelditu da, gero begietara, gero bularretakora. Ohe gainean eserita gaude, bata bestearen aurrean, titiburuekin tematu da eta bitxiloreak jaten ari den hartz gaztea dirudi. Hatzekin trapezioak bigundu dizkiot, Gogorra zaude, energia gehiegi xahutzen duzu golfaren aferarekin, eta Anjelek, Gozoa zara, polita, zergatik ez nauzu maite? Ulerbera ni, gorputzarekiko proportzioa galdu duen hori sartu dut barrura.

– Isurtzera noa... berdin dio?

– Berdin dio –eta belarri gaineko tximak orraztu dizkiot hatzekin–. Berdin dio.

– Amaitu da.

– Berdin dio.

Eta ondoren, gehien gorroto dudana esan dit:

– Hemen barruan egon nahi nuke hil artean, maitea –ume hizkera imitatuz, miauka eta muzinka.

Eta nire mututasuna mututasun eta ez pausaleku dela ohartuta, jarraitu du:

– Baina zu gaiztoa zara, eta ez nauzu maite.

Ez diot berriro esan nahi gorroto dudala gizonezkoek umeek bezala hitz egitea. Hobe horrela, errazago.

Dutxa beroak desinfekzio efektua sortzen du nigan, haragia gorritzen dit. Ohera bueltan, Anjel nire hanken artean ipini da eta sabel gainean hartu du lo.

Kanpoan, berdearen gainean, Jabierrek Bartzelonan erositako zapata berriak begiratu ditu, eta burgesegiak izan gabe klasea dutela erabaki du.

Burdina ere berria dauka, Callaway bat, titaniozko buruarekin. Eta huraxe igurtziz esan du:

– Amodiozko abentura bat bezalakoa da golfa, serio hartzen ez baduzu dibertigarria da, baina serio hartuz gero bihotza apurtuko dizu.

– Ba nik motibo bakarra daukat golfean jokatzeko: emaztea amorraraztea.

– Kontxo!

– Dibertitu egiten naizela uste du berak!

Jabierrek asko pentsatu du fusioari buruz, eta geroz eta argiago dauka ez dela egokia, onenak emanda dagoela. Pilotaren zuriak erlaxatzen du, edariak baino gehiago, putek baino gehiago. Ezetz erabaki du, Titleist zuriari begira. Burdina altxa eta pilota jo du, ezezko borobila.

– Lehen ez dut ondo esan. Bizitza bezalakoa da golfa... borroka egingo duzu, bide osoan ahalegin handiak egingo dituzu... zuloan amaitzeko.

– Jabier, hire zaharra baino askoz okerragoa haiz.

Apaletako hautsa garbitzeko eskatu dio Anjelek garbitzaileari, sinpatiaz, erruduntasunez.

Gaizkaren argazkiak gordetzeko kutxa ikusi du anabasaren erdian; hartu eta komunean sartu da. Bere antza zuen, baita amarena ere, ile, begi, azalaren kolorean.

Pilotatxoak kentzeko makinaren zaratak Ane inguruan dabilela ohartarazi dio, eta lababo azpiko armairuan gorde du kutxa.

Platano irabiatu bi prestatu ditu Anjelek, kafea eta ogi xigortua marrubi mermeladarekin. Itxaropenaren sinboloa iruditu zaio une horretan mermelada, eta agian, Anek buelta eman diola, dagoeneko bi urte igaro baitira.

– Ez ahaztu, Ane, 20:30ean ETB-1ean edo 21:00etan ETB-2an. Pena bakarra daukat: Cerecedak Antena-3 ikusiko du.

Sukaldeko leihotik polodun bi gizon ikusi dituzte euren orgatilak arrastaka.

Hori besterik ez dut desiratu esnatu naizenetik, Cereceda izena entzun eta ondoren Anjelen espitxa, *after shave* usaineko energia zurrunbiloa, irabiatuak zikindutako muturra mingainarekin garbitzeko manera, kalerako jantzita baina txa-

pinak erantzi gabe. Horregatik, arretaz entzun diot mahaiaren beste aldetik, hitz guztiek urra nintzaten saiatuz, hitz bakoitzak. Eta galdera asko egin dizkiot, bi urte hauetan egin gabe utzitako guztiak. Uste duzu ondoriorik izango duela ETBkoak? Noizko jasoko dugu epaitegietako erantzuna? Uste duzu Cerecedari irabaziko diogula? Eta azalpen guztiak tropelean, ume bati kasu gehiegi egiten zaionean bezain harroturik Anjel.

– Afaltzera etorriko zara?

Anjelek begien dirdira soilik ikusi du Aneren aurpegian, eta arratsaldeko bilerarekin akordatu da, eta bilerarik ez duela esan dio. Oraindik begi azalean dauka Gaizkaren irudia.

Anek haragizko muxu bat eman dio Anjeli lanera abiatu aurretik.

– Gauera arte orduan.

Pilota batek terrazako hormaren aurka talka egitearekin batera askatu du Anjelek haragia. Eta muxua ezpainetatik zintzilik irten da etxetik.

Senarraren gamelu ibilerak eta ipurmasail poliedrikoak, jakaren tolestura irekiak bizkarraldean. Non nengoen ni hori gertatu zenean, zein unetan zartatu zen jaka, noiz jaio zitzaizkion ertz horiek guztiak. Autora igo denean, leihoa bajatu eta eskuaz agur egin dit. Gizon bat, pentsatu dut, gizon bat bere autoan emazteari agur eginez. Eta nahiz eta unaturik eta desolaturik egon nahiko nukeen, ondo nago. Mugaren bat gainditu izanak kezkatzen nau. Gaizka begiratzen nuenean bezala, bera eta ni bainuontzian, beso txikiak ura apurtuz, nire bular xaboiztatuak esneak puztuta, hizkuntzarik ederrenean hizketan, ggg, gggggg, ggggg..., nahiz eta: Bihotzeko gaitza bizi osorako da, Ez du inoiz beste umeen bizi kalitaterik lortuko, Balbula hori konpondu ezean arazo larriak izango ditu.

Nezeserra maletan gorde eta etxeko errezel guztiak ireki ditu. Maleta mehe bat eramango du, han erosiko du arropa.

Diru arazorik balute sikiera, edo negozio zikinen batean sartuta harrapatu izan balute Anjel.

Egongelako leihotik golf jokalariak begiztatu ditu, belar gozoa, harri hezeak. Iragana izango den guztia begiratu du, sofak eta koadroak, golf pilotez estaliriko terraza, altzariak eta gizon horren argazkia.

– Christine? Bederatziak hamar gutxiagotan helduko naiz.

– Ondo zaude?

– Bai, bai.

– Anjeli erran diozu?

– Ez.

– Segur zara hartutako erabakiaz?

– Uste dut baietz. Bai.

– Zuretzako logela konpondu dut.

Gaur amaituko da dena. Gaur hasiko da dena. Gauean Baionarako trenean egongo naiz, Christineren etxerako bidean. Eta Anjel, menestra eta bakailaoaren aurrean hutsari begira, zain. Irudi horrek sortzen dit ezinegona. Afaria prest uzteak.

Gutunik gabe (zer esan behar diot orain, hamabost urte eta gero). Anjel, gainera, gai da txeratsu idatzitako lerro bati helduta gelditzeko (hemen maite nauzula dio), aldamiotik labaindu eta hoditik zintzilik gelditu den langilea bezala.

Baionatik hots egingo diot akaso, bihar edo etzi, ondo nagoela esateko.

Inoiz kolpatu izan banindu bederen, edo ahizparekin ohean harrapatu izan banu.

Baina ezezagunak aurrean dituenean bere hitz egiteko modu hori, edo ogia bustitzeko ohitura, edo mingainaren mugimendua muxu ematen didanean, edo pozik dagoeneko energia horrible hori.

Nire iraganari zer gertatuko zaion berdin dit.

Ate hau ireki eta etxeko giltzak egongelako kutxaren gainean utziko ditudanean, pilotatxoak erauzteko makina eta Gaizkaren argazkiaren artean, zapi brodatuaren gainean, kutxan arrastoa egin ez dezaten.

T’est très belle

¡Oh, Maldición de Malinche!
¡Enfermedad del presente!
¿Cuándo dejarás mi tierra?
¿Cuándo harás libre a mi gente?

Zuritik ala beltzetik gertuago dagoen zehaztea inposiblea den itxarongelara sarrarazi ditu guardia zibilak Aitor, beste abokatu bat eta Ayuda en acción-eko boluntarioa. *Abogados, Iglesia, ONGs* idatzita orri zahar batean. Aitorri mesedezko agur bat egin dio metalezko betaurrekoak dituen boluntario tximaluzeak, eta beste abokatuak *Buenos días* kriptiko bat esan du. Boluntarioaren trikota boliviarretik abokatuaren Emidio Tucci krabatara mugitzen du begiratua Aitorrek, eta otu zaio, boluntarioak musika talde kuttun gehiago konpartitzen dituela berarekin krabatadun abokatuarekin baino, eta tofua, seitana eta wok sukaldaritza dastatzen dituztela tarteka nahiz

eta gehiegi gustatu ez, eta kalamuaren legeztatzearen aldeko kanpainaren batean bien sinadurak egonen direla, beste abokatuarena ez bezala. Alta, boluntarioak krabatadunarekin hitz egingo du, Aitorri jaramonik egin gabe: *José Montoya es un interno que vale mucho y tiene coco*, hatz bat lokian pausatuz, *aunque a nivel comunicativo le queda mucho curro por hacer*, eta abokatuak erlojua bi eskumutur keinuz behatuz, *la parienta piensa que con el nacimiento del crío se va a enderezar*, eta solasa zarratu dute irriño konplize batez, burua saminez legetxe astinduz. Funtzionarioak aurrera egiteko agindu-gonbita egin die eta beirazko korridoretik abiatu dira. Aitorrek, bere presoan du gogoa. Nola esan. Boluntarioa eskaileretan gora abiatu da funtzionario baten atzetik, eta bi abokatuak korridore baten ertzean gelditu dira, presoak ekarri zain.

Lukasen hatza funtzionarioaren esku artean da, mamia belztu eta paper baten kontra sakatu diote, Jose Montoya Ubedako presoari ere bai, eta hortzik gabeko irribarrea egin dio Lukasi, *qué pasa vasco*. Lukasek esan dio *Aupa Sabina*, eta Jose irri karkaila batean lehertu da, lixiba eta mi-

seria usaineko korridorean. Aitorrek Lukasi besarkada sendo baina laburra eman dio. Nola esan. Funtzionarioak *tienen hasta las doce treinta* esan du. Aitorrek milaka tolestura egindako gutuna eman dio Lukasi eta honek uzkian sartu du botoi bat lotzen den naturaltasunaz, abokatuarekin hitz egiteari utzi gabe.

– Zer moduz hago?

– Putamadre.

– Hire zaharrarekin egon ninduan, erabat osatu duk.

– Nahiko nikek haren sasoia.

– Zer moduz zaudete?

– Kanibalentzako zopa batean igerian egotea duk hau. Arratsaldeko beroa edonor erotzeko modukoa duk eta igerilekuan korrokoiak jaio dituk.

– Iritsi zaik berririk?

– Bai, noski.

Aitorrek kaiera atera du patrikatik, zerbait idatzi eta Lukasi erakutsi dio, eta zerua edo gauza misteriotsuak edo jainkoa egoten den tokira seinalatu du hatzez. Gero zirriborratuko papera erakutsi dio.

– Noiz? –galdetu du Lukasek irakurri ostean.

– Berehala.

– Zuek paella jaten duzuen bitartean Benidormen edo ahate konfita Landetan...

Aitorrek barre egin du, labankadaren mikatzari erreparatu nahi izan gabe*, hau duk hau jendea, hau duk hau herri noblea* bere kabutan.

Alde egin aurretik, Aitorrek sorbaldetatik tinkatu du presoa, eta bere bularrera erakarri du, eskua lepo gibelean jarrita, belarriari atxikita ezpainak, *eutsi goiari kaguendio*. Presoak ukabila estutu du:

– Nik baino tankera txarragoa daukak, Aitor.

– Akituta natxiok. Datorren hilabetean oporretan joango nauk, bi aste, iaz ez ninduan atera eta behar diat.

– Benidormera edo Landetara?

– Korsikara.

– Neskarekin?

– Bai, nazkatuta zagok nitaz.

– Ba ote?

– Eutsi goiari, mekaguendio.

– Eutsi ala hil, hago lasai. Datorrenean esango diat zer dioten besteek.

– Aukera bakarra duk, ez zagok besterik. Egoera eztandarazi beharra zagok, barruan eta kalean, bestela akabaturik gaudek.

– Maikak ez dik niretzat ezer eman?

Abokatuak hegazkin txartel merkeak lortu ditu Interneten, Miarritze-Ajaccio, eta mezulariak etxera eraman dizkionean, oraindik ohean dagoen neskarengana joan da, eta atearen langan kukuturik astindu ditu, begira zer lortu duen zure gizonak. Neskak harrituarena egin du, eta ohera hurbiltzeko esan dio, *etorri hona*, gerrikoa askatu dio, zilborra hozkatu, ipurdia esku hotzez tenkatu, biloa ezpainez tiratu.

Lukasek Cola Cao poteari estalkia kendu dio eta sudurra hurreratu du, higuin apur batez. Txantreako kide batek esan dio kefirra gosaltzea osasungarria dela, eta potean gordetzen du azalore itxurako onddoa. Gauez arnasa hartzen entzuten du eta kartzelako hotsik beldurgarriena zaio. Nahiago luke txokolate esnea edan, baina indartsu egon nahi du gose grebarako, eta eskumuturra loturik izan zueneko benda erabilita ira-

gazi du jogurta, hiru koilarakada azukrerekin nahastu eta irentsi du, eta kefirrari begira gelditu zaio bitartean, zenbat gizendu den, zergatik hartzen ote duen arnasa hain ozen, nola esango dien gose grebarena kideei.

Check in-a egiteko ilaran daude, Aitor Euskal Herriko mapa eta geziak dituen elastikoa jantzirik, bizkar zorroa hankartean; Aitziber, kanpin denda tolestuaren gainean dago jesarrita, *Gara* besapean. Jantzi sport erosoak aukeratu ditu hegazkinerako, baina ez du ohiturarik halako arropekin, eta amaren esanaz gogoratu da, Ezer ez dago traketsagorik emakume bat txandalean baino. Aitorrek ilaran daudenak behatzen ditu, *Gabatxo putakume hauek guztiek urtean pilatutako dirutza utziko dute lehertzeko arriskua duten hoteletan*, eta kanpin dendaren gainean jesarriz bera ere, *Lonely Planet*-a zabaldu du.

Presoak bi egun zahar den egunkaria zabaldu eta irakurri du bere urteak izan direla, iragarki beltz batean, Zorionak Lukas, eta koadrilaren argazki bat, Aiako Harria atzean, eta Maika bere txakurrarekin, *zu atera arte nik zainduko dut*. Eta gogoa du Maika bertatik atera eta rekortable

modura liburu batean gordetzeko, baina ez du begiratuko behar-beharrezkoa ez den artean, 150 gramo; indarrek huts egiten badiote soilik, 120 gramo; lagunak dira oraindik, 20 gramo. Arto eskukadak bailiran baloratu ditu Maika rekortable gisara gordetzeko gogo eta zalantzak, eta jostailuzko guraizeak atera ditu kartapaziotik; 220 gramo, badu denbora gose greba ostean haustura gainditzeko, eta laranja koloreko kartulina baten gainean itsatsi ditu Maika, *Wilko* eta Aiako Harriaren tontor bat. Hurrengo deia berari egingo dio.

Trekking bota berriei beha gelditu da, puntan bildu duten hautsa astindu du hatz potoloaz, *horregatik deituko zaie* maquis *gerra zibileko gudariei, uhartea estaltzen duen sasiaren izena da,* macchia *korsikarrez*, neskak interesa adierazi nahi duen betartez jarraitu du mutilaren disertazioa. *Napoleonek esaten zuen macchia usainagatik zela bere jaioterria ezagutzeko gai*, su-eten bat emango dio, benetan aldatu den erakusteko aukera, *baina ezin izan zuen froga egin, Santa Elenako desterruan hil baitzen. Z*erbait interesgarria esaten ari zenean jartzen duen ahotsaz

mintzatu da. *Eguzkia espero dut, azala kiskaltzeko irrika dut, ez dugu mendia bakarrik egingo*, eta Aitorrek belauna igurtzi dio. Aitziberrek erabaki du belaun ukimendu horrek ezarriko duela mugarria, benetan aldatu bada orain erakutsi beharko du, belaun ukimendu horretatik Miarritzera bueltan etorri arte iraungo du frogak, hamahiru egun eta zazpi ordu.

A Cuncoltako Roger lagunaren etxera abiatu dira Ajaccion. Aitorren kontra estutu da ehiztariz jantzita dagoela dirudien gizona taxitik jaitsi bezain pronto *elle n'est pas si moche... ta copine*. Aitziberren aurpegiari esku biez oratuz esan du, bekainak makurtuz, eta irri egin du Aitorrek, *esan nion bezain itsusia ez zarela dio*, eta neskak profeta itxurako gizonaren hitz goxoa esku zabalik hartu du, lotsatiarena eginez, eta frogaren iraupenaren erloju hotsa buruan, tik-tak-tik.

Deituko dio esanez amari eta lagun pare bati deitu diola baina ez diotela telefonoa hartu, horregatik deitu diola berari eta abar. Hori esan behar dio totelka hitz egin gabe, *amari eta lagun*

pare bati deitu diot baina ez dute erantzun, kalamidade halakoak, eta horregatik deitu dizut zuri. *Lagun*, sexua ez zehaztea inportantea da. Eta indartsu dagoela, gaur hasi direla, hortxata edateko eta pipak jateko kapritxoa izan zuela bart eta kefirrak berak baino elikadura hobea izango duela datozen egunotan. Eta Maika aldarte paregabean, merendero batean *Wilco*-rekin jolasean ariko balitz bezala udako arratsalde batean, nahiz eta bulegoan dagoela esan dion, etsigarriki lagun, *maitea* behin eta berriro makulu gisa, nahiz eta jakin hitz debekatua dela bi hilabetetik hona. *Eutsi maitea, deitu nahi duzun beste, faltan botatzen zaitut, maitea*. Lukasek ukabilarekin hartu dio neurria solasari telefonoa eskegi ostean, distantzia hartu behar dut, 160 gramo; oraindik lagunak gara, zer deabru, 50 gramo; eta damutu aurretik Maikaren errekortea hartu du, eta irakurtzen ari den liburu barruan sartu: *Vigilar y castigar.* Funtzionarioak jaki-ontzia jarri dio ate aurrean, plastikoan bildutako opil bat, kafesnea, ogi xerra bi, gurina, marmelada. *Estamos en huelga de hambre, Jimeno*. Funtzionarioak

nadie le obliga a comer esan dio, eta antiojoak garbitu ditu urdinaren ertz batekin.

Rogerren emazteak esku gorriminak amantalean igurtzi eta bikote iritsi berria besarkatu du. Izerditan, suak gobernatzen egon denaren seinale, egongelara eraman ditu prestaturiko jakiak erakustera.

Lukasek ur-botila zilbor gainean dauka, sabaian behatua, haratago gogoa. Hirugarren eguna da ura baizik ez duela sabeleratzen, eta gose da modu desagradablean. Botilaren etiketan hazka egin du papera hautsi arte, eta oroitu du Maika esaten irrika sexual asegabearen ondorioz egindako keinua zela hura. Lukasen amamarekin bazkaltzen ari zirela esan zuen, amama ene eta jesus, neskato hau... eta Lukasi gustatzen zitzaion Maikaren aldrebeskeria hura, egoerarik ezegokienetan gauzarik ezegokienak esateko ohitura, eta ekonomatotik ekarritako hamabiko paketetik azken-aurrena hartu du, Aitor eta Aitziber, Roger, anaia bizargorria, emaztea, eta Alderdiko bi lagun mahaira eseri diren une berean. Zurezko boletan uhaza eta iturri-belar entsalada bana, patea, hestebeteak, basurde ragu-

ta, ardo beltz botilak eta baserriko ogia. Rogerrek ardoa zerbitzatu du, eta tente jarrita, bizarra apur bat laztandu eta Euskal Herrian ikasitakoa errepikatu du: *Osasuna eta askatasuna*. Kea darion ragutaren gainean egin dute topa guztiek. Aitziberrek patea hartu du eta Rogerren anaiak esan dio *c'est du paté de merle* eta Aitorrek argitu dio mirlo patea dela, jakin gabe mirloa zozoa dela.

Kefirrari esnea aldatu eta gabon esan dio. Konketa zulotik doan esne arrastoak urdaila garraztu dio Lukasi eta Cola Cao bero eta ilun bat gogoz hartuko lukeela egin du amets. Seigarren eguna da gose greban eta buruko minez dago. Patioan Fermin eta Galder eserita dauden txokora bildu da. Fermin greba mintzagai duen egunkariko zutabe bat irakurtzen ari da ozen. Lukas heldu denean hasieratik ekin dio. *Entzun ezak putakume honena, Arruti*. Fermin bera baino hamasei urte nagusiagoa eta Galder belaunaldi bat lehenagokoa izan arren, kartzelak guztien adinak berdintzen ditu. Euren plastikozko botilak gerizpean daude, etiketak erauzita, baita ere. *Hau gose puta*, egin du garrasi Galderrek eta Lu-

kasi plakaje bat egin dio, ura lurrera isuriz, funtzionario baten zapata hautseztatuetaraino.

Rogerren anaiak autoa utzi die eta Aitor eta Aitziber Sagonera abiatu dira. Autoan Canta U Populu Corsu-ren kasetea ari da jotzen, eta Aitorrek leihotik zintzilik daraman besoa gora eta behera eraginez baritono ahotsa imitatu du. Aitziberrek, hanka biluziak kristalaren kontra, iletxoak kendu ditu hatz puntez, eta pentsatu du agian baietz, merezi duela saiatzeak, mutil ona da, eta argia, begi eta irribarre ederrekoa. Kilometro batzuen buruan Sagoneko portu txikiaren ondoan utzi dute autoa. Haizea bero eta lodi dabil. Urpekaritza ekipoak lotu dituzte bizkarrean eta itsas txangoak antolatzen dituen gazte baten bila jo dute. Gazteak Adidas galtzak daramatza soinean, belaunetik behera mozturik, eta *bi ordu 200 libera* esan die, espainol traketsean. Itsasora atera eta ordu erdi eskasean gazteak motorra itzali eta garagardo botila bat atera du neberatik. *Ici*, esan du ur zati bat kokotsaz seinalatuz, karelean zutik. Botilatik tragoa hartu eta marrazoekin kasu ibiltzeko esan die umore onez. Aitor pulunpatu da lehenik. Gero eskuekin keinuak

egin dizkio neskari, eta hau, igel hankak eta esnorkela jantzita, ontzitik erortzen utzi da.

Lukasek Maikaren errekortea eguzkiaren kontra begiratu du eta okurritu zaio, agian kontraluzean, soineko azpiko kuleroak ikusi ahal izango dizkiola. Kartzelan dagoenetik horrelako burutazioak izaten ditu sarri. Batzuetan amildu eta erotu egingo dela pentsatzen du, eta horrelakoetan Ubedako Joserekin akordatzen da, amonaren gibela zulatu zuen presoak esandakoarekin: *¿Comes mierda? Pues entonces no estás loco*. Hamargarren eguna da. Ez du gogorik etxera deitu eta amari ongi dagoela esateko. Patiora ez da irtengo, kideak koaderno bat idazten ari dira sukaldaritza errezetekin eta elikagai baten izena entzute hutsarekin zuku gastrikoak martxan jartzen zaizkio Lukasi. Goizetan, ziegako iturri azpian ipintzen du ur botila, porlanak labe bihurtzen baitu gela, baina egunak aurrera egin ahala eguzkiak espetxeko hoditeria berotu eta iturriko ura ere bero irteten da. Kefirra konketatik behera bota du, eztarria garrazten zaio ikusi orduko. Eta Maikari gutun bat idazteari lotu zaio,

baina ez du agurra erabakitzea ere lortu eta liburua zabaldu du bart utzitako orrialdean.

Ur motoetan gizen eta gorri doazen frantsesei begira dago Aitor. Aitziberrek bainujantzitik tira egin dio eta ur azpian larrua jotzen saiatu dira, orain marinela kanuto bat erretzen ari dela ontziaren bizkar gainean erroz gora. Baina etsi egin dute, itsasoaren kulunkak ez baitie asmatzen utzi. Irrikak eta eguzkiak musugorritu ditu, Aitorrek maite duela esan dio, bainujantzia itzultzeko, Aitziberrek *nik ere bai* esan dio eta besarkadaz jaregin eta ontzira abiatu da. Aitorrek badaki ez duela harrapatuko eta urruntzen ikusi du. Aitziberrek zupada batzuk egin dizkio marinelaren kanutoari, eta horrelako mutil batekin elkartuta izango lukeen bizimoduarekin pentsatu du, eta beheko ezpainean gelditu zaion gatza kendu du mingainarekin. *T'est très belle*, esan dio gazteak, eta Aitziber ohartu da gaztea ikusi duenetik hori izan dela bere erronka, gazteari berari buruzko hitz horiek esanaraztea. Zeruertzean jauzika ari den izurdea seinalatu dio Aitziberrek.

Hay que recordar también que el movimiento para reformar las prisiones, para controlar su funcionamiento, no es un fenómeno tardío. No parece siquiera haber nacido de una comprobación de fracaso debidamente establecido. La reforma de la prisión es casi contemporánea de la prisión misma. La reforma de la prisión es casi contemporánea de la prisión misma. La reforma de la prisión es casi contemporánea de la prisión misma. La reforma de la prisión es casi contemporánea de la prisión misma. La reforma de la prisión es casi contemporánea de la prisión misma. Kosta egiten zaio irakurtzen duena ulertzea eta ziega baleiatzeari ekin dio. Ondoko ziegatik Galderrek deitu dio: *Arruti, bexamela egiteko legamia behar al da?*

Kanpin dendara bueltan Korsikako kostalde harroa erakusten duten postalak idatzi dituzte, haietako bat Lukasi, gauza epikoegiak esaten ari direla jakitun, berehala bukatu gogoz. Aitziberrek esan dio nahiz eta ondo pasatzen ari, ez dakiela apurtutako zerbaiti eskotxa jartzen ibili ote nahi duen, *Egiaren bila nabil*, aitortu dio, eta tik tak tik tak entzun du bere barruan geroz eta mo-

telago, geroz eta motelago. Segidan Aitorren irudia etorri zaio ontzira bueltan igerian, eta *Gupida da amoranteen galbidea* idatziko du geroago egunerokoan.

Ur botilekin egindako koilarea zintzilikatu dute Galder eta Lukasen artean, ziegatik ziegara, zazpigarrena. Ekonomatoan ur marka berria ekarri dute eta Lukasek ez du maite, metal zaporea du, eta okerragoa dena, dagoeneko gorputzari kosta egiten zaio ura asimilatzea. Egunkaria zabaldu eta zutabe estu batek haien berri dakar: Aratz Gojenola erizaindegian da, Amaia Iradier eta Edorta Rojok gose greba utzi dute osasun arazoengatik, Athleticek Betis egurtu du San Mamesen, bertso txapelketa bat debekatu dute, lurrikara baten erruz berrogeita zazpi pertsona hil dira Osakan. Telebistan *Las bicicletas son para el verano* emango dute, eta duela hiru egun pertsekutatzen duen insomnioari konpainia egiteko plana egin du Lukasek: arratsaldean Maikari gutuna idatziko dio nekez izan daitezkeela lagun esanez, gezurretan ibiltzeko indarra ere faltan duela. Aldaketan bi ubeldura atera zaizkio Lukasi hezurrak lastairaren kontra eduki-

tzeagatik, ipurtaldean bi urradura. Hotz da, nahiz eta kanpoan eguzki zuri batek belarrak zimeldu. Eguneko bigarren dutxa hartu du.

Cortiko mendi artean bi eguneko iraupena duen Independentziaren Aldeko Topaketa egiten ari dira, eta Cuncoltakoek Aitor eta Aitziber Euskal Herriko ordezkaritza gisa gonbidatu dituzte, nazioarteko topaketa horretara bretoiak baino ez baitzaizkie bildu korsikarrei. Herri zanpatuetako banderak eta pankarta mordoa, agertokia duen txapitoa eta globoak eta kiosko moduko bat dago ekimenerako baliatu duten belazean. Aitorrek pastisa edaten eta basurde lukainka jaten idatzi du mitina paperezko zamau zati batean. Amaitutakoan Aitziberri erakutsi dio eta *zapalketa* eta *errepresio* hitzak gehiegitan errepikatzen dituela esan dionean haserretu egin da. Azkenerako bertan behera utzi dute «Euskal gatazka gizarteratzeko ekimena», ez baita kazetaririk agertu mendi arte hartara, eta Aitziber poztu egin da, arriskutsua litzateke-eta harremanaren une horretan Aitor hizlari paperean ikustea. Keinu batek erabakitzera bultza lezake, eta berriro orratz hotsa. Basurdea jaten eta pastisa-

ri lekuko hartutako ardo lodi bat edaten jarraitu dute bazkalordura arte, eta Lukasek Galderri esan dio hamargarren egunetik aurrera ez duela balio egunak zenbatzeak, hamar egunetik gorako gose greba, gose greba luzea dela eta kito.

Baleiatzen ari da ziega hirugarrenez, burusia kapa gisa loturik lepora, korrido bat ezpainetan, aitonaren hitzak gogoan: zorionekoa kantua maite duen gizasemea. Eguerdia da oraindik eta gauera bitartean ez du eguna ebakiko dion ezer, irakurtzeak buruko mina ematen dio eta musikak oroitzapenak ekartzen dizkio, eta oroitzapen onenak ere txar bilakatzen dira oroitzapen izateagatik, horrelakoa da malenkonia. Korridoak euskaratzen ditu baleiatu bitartean eta efektuak barre txiki bat eragiten dio. Erratzari besarkatuta, Maikari esan ez zion hartaz oroitu da eta agian nonbaitetik jakin duela eta horregatik guztia. Oroitu da umetan klaseko tontoa salatu izanaz justiziaren izenean. Oroitu da aurreko nobiarekin zinema atarian gelditu zela eta gerturatu ahala, euripean ikusten zuela neska, ilea aurpegira itsatsirik, hanka okerrak, urduri ez zegoenaren plantak eginez, eta lastima moduko bat sen-

titu zuenez kalexka batean gorde zen. Eta kide bati esandako gezurraz, gastroenteritisa jota zegoela eta ezingo zela zitara agertu eta kidea joan zela bere ordez. Eta ezkutaturik zegoen etxeko andreari esandakoaz, ez zeukala nobiarik. Kide bati esandakoaz, Foucaulten zerbait irakurria zuela baina ez zuela titulurik oroitzen. Korridoaren letrara plegatu nahi du gogoa, oroitzapenetatik urruti, alferrik. Malintxeren madarikazioa. Eta Maikari esandako gezur hartaz, gorderik zegoen etxeko andrearekin ez zela deus gertatu. Amor eman du eta ohean etzan da, erratza leihoaren kontra utzita, dantza bikote abandonatua bezala. Gosea eta hotza baino gehiago du miseria sentsazio bat gerra bateko negar guztiak bailituen tripan, edo putreek jan nahi ez duten haragi puska usainduna bailitzan basamortuan. Eta oraindik goizeko hamaikak zazpi gutxi dira.

Gaua da eta rock talde bretoi batek eman beharreko kontzertua bertan behera gelditu da abeslariak gehiegi edan duelako. Rogerren anaia bizargorria belazean zehar barreiaturik dauden lagun batzuk bildu ditu txapitopean, eta hatz gizenekin orkestra zuzendari plantak eginez, kan-

tuan ipini ditu hamar edo hamabi gizon handi. Abesti herrikoiak dira, Aitorrek ezagutzen ditu batzuk Canta U Populu Corsu entzutetik. Ardoak lagunduta, kantuari lotzen zaio, Aitziber egurketari itxurako gaztearen arrastoan egiten ari den estalketa erritualaren aurrean zirkinik atera. Rogerrek, lagunarengan zerbait ondo ez dagoela igarrita, txapitopera eraman du lepotik hartuta. Bizargorriak intziri egin du abesti baten erdian, eta taldekoek ozenago egin dute kantuan, orduan Rogerren anaiak gibeletik burdina bat atera du eta zuri-gorria den zerura jarri da tiroka eta saltoka, eta abestiaren unerik gorena dirudienean txapitopean dauden batzuk eta belazean zehar barreiaturik dauden beste batzuk, euren burdinak atera eta batzuk gauari eta beste batzuk txapitoari lotu zaizkio tiroka, uluka, ardo pitxarrak airean, jauzika. Rogerrek burdina eskaini dio Aitorri, *prends-la, elle fait pas du mal*, eta hasieran herabe, inoiz ukitu gabeko metalaren gainean jarri du eskua, filmetako epaiketetan errugabeek Biblian nola, eta Rogerren begiratuaren onespenarekin, ardo basoa mahai gainean laga eta gau gordinaren kontra egin du,

geroz eta festa gehiagorekin, boterea bainoago askatasuna esku ahurrean balu moduan.

Abere hilen zaporea du ahoan, gose zaporea, eta bista lainotzen zaio irakurtzen hasi eta berehala. Ahalik eta denbora gehien eman nahi du ohean, ahalik eta energia gutxien xahutu, ahalik eta errealitate zati txikienarekin talka egin. *¿Comes mierda?*, buruan jiraka. *¿Comes mierda?*, azkenean konketa gainean gaileta kaxaren kartoi zati batean tenperekin idatzi du, inguruan koloretako pinpilinpauxak marraztuta*, Zure kaka jaten ez baduzu ez zaude eroa*, eta jakin gabe zergatik, esaldia irakurtzen duen bakoitzean Clint Eastwood irudikatzen du eguzkiak begiak zarrarazten dizkiola esaldia ahoskatzen. Patiora jaitsi beharra dauka kideekin egotera. Fermin buruko min handiekin dabil eta zenbat iraungo duen ez dakiela esan zien bezperan. Lukasi iruditzen zaio ez ziola behar besteko berotasuna azaldu lagunari eta horrek loa zaildu dio. Orain-dik ez dute posta banatu eta agian gaur Maikaren erantzuna helduko zaio.

Cortiko egunsenti ubelaren erdian esnatu da Aitor furgonetaren atzeko aldean, Korsikako ban-

dera gona gisara jarrita, rock kantaria eta egurketariaren artean, trekkingeko botak oraindik soinean. Aitziber Rogerren anaiarekin ari da karta jokoan oholtzaren gainean, mototsean lore batzuk eta adaska batzuk dituela lotuta. Maikak, azken esaldia izkiriatu du orri koadrikulatuan: «uste dut berriro maitemindu naizela, Lukas... zurekin gainera».

Apur bat zoroa

Matildak Begoñaren goiko ezpainari begiratzen dio zigarro bat pizten duenean, edo ohe ertzean eserita dagoela, etorri ertzerago, burua hanken artean sartu eta begiak berari begira, gozogozoa zaude gaur esaten dionean. Orain ordea autobuseko heldulekutik zintzilik emakume bat gehiago da Begoña, adatsak zimeltzen hasiak, betazalak puzten, begiak lanbrotzen. Orain hor hatsa kafesne eta loguraren arteko nahasketa da, patillak bele zahar baten hegalak, imajinatuko ez balu ohe ondoan belauniko, bere hanken artean ezpainak bustirik.

Amarena ari zaio kontatzen Begoña, baina Matildak bartekoa du gogoan, eta ahoari begiratzen dio, nola tolesten den, bilo xuabea, bisaiarekin mugan hazten zaion pekatxo urdinxka, lastoz erdizka egindako habia modukoa besapean.

– Zer egin behar duzu gero? –galdetu du Matildak.

– Kanposantura joango naiz, amaren urteak dira gaur.

– Triste zaude?

– Ez, gustatzen zait hara joatea. Nirekin etorri nahi duzu?

Ezetz esan du Matildak, fabore bati ezezkoa esaten zaion tonuarekin.

– Oso harreman ona genuen, batez ere hil aurretiko bospasei urteetan. Kasta handiko emakumea izan zen beti.

Matildak inbidia sentitu du, hildako bati buruz horrela hitz egiteko gai delako Begoña, eta pentsatzen du bizirik dagoen bati buruz ere ez dela gai horrelako gauzak esateko, edo agian ez duela horrelako gauzak esatea merezi duen inor inguruan.

– Zenbat urte beteko lituzke gaur?

– Hirurogeita zortzi.

Matildaren aitak berrogeita bederatzi. Matildak ez daki kasik heriotza zer den. Aita langile jatorra izan zen inoiz, bazkalorduan egunkaria eta ogia ekartzen zuten horietakoa, lan bidaia bat egiten zuen bakoitzeko panpina bat eramaten uzteko eskatzen zion Matildari (panpinekin

ibiltzeko garaia igaro zitzaionean ere eskatzen zion oraindik), eta notak sinatzen zizkion ebaluazio amaieretan.

– Lesbiana nintzela onartu zuenean asko aldatu zen. Umea adoptatu ahal izateko paperekin asko lagundu zigun Arantzari eta bioi.

– Ez zait Arantza gustatzen.

– Ez duzu ezagutzen. Amak pena handia izan zuen harremana utzi genuenean.

– Nitaz hitz egin diozu? –opari-galdera izan da, erregutzea batzuetan opari bat egitea baita, Matildak Begoña boteretsu sentitzea nahi du, seguru, alai eta beharrezko.

Begoñak barre egin du ozen, eta Matildari oholtza gaineko barrea iruditu zaio, oparia gaizki ulertu duenaren barrea.

– Gaur hitz egingo diot. Ederra zarela, apur bat zoroa, baina neska ona. Eta zuk zureari?

– Ez.

– Eta esango diozu?

– Zu zara nire lehenengo neska, ez diot debaldeko disgusturik eman nahi.

Matildak muxu eman dio besapean. Begoña baino hamabost urte gazteagoa da eta gusta-

tzen zaio gazte rola jokatzea, dena baino umeago den norbaiten galderak egitea, zientzia-fikziozko komikiak irakurtzea edo Cola Cao eskatzea tabernetan, Begoñak bitterra edo tonika hartzen duenean.

Fitxatu aurretik arropaz aldatu dira, lanekoa jantzi dute, zuri-zuria. Matilda pozik dago Begoñaren kuleroak jantzi dituelako goizean. Andre kulero zabalak dira, galtza zurien azpitik sentitzen dituen kulero eroriak. Maitaleen barruko arropa jartzea gustuko du haien etxetik irteteko. Paulen galtzontzilo bilduma osatu zuen garai batean. Zuekoetan sartu dituzte oinak. Ispilu aurrean paperezko txanoa ipini dute eta ondoren plastikozko eskularruak, ukondoetarainokoak.

– Batzuetan liburu bat hartu eta harrizko banku batean esertzen naiz, edo besterik gabe, eguzkia hartzen dut, hantxe, luze eta zabal. Maiz joaten naiz –eta hortzen arteko azken ile-orratza egokitu du Begoñak paperezko txanoan.

Gomazko zinta mugikorraren gainean porespanezko erretiluak, launa piper gorri bete ipini

behar dituzte barruan. Matildak maite du piperrak plastikozko eskularruekin ukitzea, plastikozko atzamarrak hondoratzea berdin haragi berdin errai dirudien gauza bigun horretan, begiak itxi eta bertan galtzea.

Arduradunak errieta egin die gehiegi hitz egiten dutelako, baina ez zaie axola.

– Kontatuko diot Istanbulera goazela. Baina ez diot esango abioiarena, beldurra izan die beti traste horiei.

– Baina ozen hitz egiten diozu?

– Ez neska, esateko modu bat da. Ondoan eseriko naiz eta berarekin pentsatuko dut.

Matildak keinu ulerkorra egin dio, elkarrizketa finitzeko gogoz, batzuetan elbarri sentitzen da, ez baita gai emozioak Begoñak bezain ondo gobernatzeko.

– Kalak erostera lagunduko didazu?

– Ezin dut. Egitekoak ditut.

Ahal moduan igaro ditu laneko lau orduak, ia hitzik egin gabe, Begoñari isiltzeko keinua eginez bekainekin, enkargatua atzean izango balu bezala. Egitekoak ditu. Bera ere kanposantura joango da, baina ez dio Begoñari ezer esango.

Adinak nahikoa botere ematen dio Begoñari eta Matildak gustuko du, onartzen du, jokoa ematen dio, oraindik ondo kudeatzen duen botere kuota baita. Enkargatuak hiruna oilasko erretilu eta launa flan edo arrozesne hartzeko esan die langileei, begiratu gabe, oinetakoa lotzen duen bitartean, heriotza zigorra barkatzen ari zaien espetxe zuzendaria legez.

Matilda aitari zer esan ari da prestatzen. Bitxiloreak erosi ditu azokan, kolore askotakoak, horiek dira gustatzen zaizkion lore bakarrak, gainontzekoak zaharrentzako loreak iruditzen zaizkio. Arrazoia izango du Begoñak, kanposantuak toki lasaia ematen du, baina Matildak ez ditu begiratuko ume hilen harlauzak. Ume hilen loreak eta argazkiak. Begoña egoera horretan irudikatzen saiatu da eta ikusi du natur dendako sandaliekin, ikusi du modaz pasatako eguzki betaurrekoekin banku batean eserita, betaurrekoak buru gainean egokitzen, oinak sandalietatik ateratzen, Landetako pinudi batean egongo balitz bezain fresko. Matildak inbidia sentitu du hau dena

imajinatu duenean eta aurkitu duen lehen bankuan jesarri da, koloretako bitxiloreak alboan utzi ditu eta oinak sandalietatik atera, baina ospela da zokoa, eta kanposantuan hotz izatea, beste edonon baino hotzago izatea da, eta jarraitu du oinez, hilarri guztiei beha, plastikozko loreei, herdoildutako pitxarrei, bizirik zeudeneko argazkietan ere hilda daudela diruditenei.

Azkenean aurkitu du eguzkitan dagoen banku huts bat. Maite du bakarrik egotea. Bakarrik egoteak bakarrik gelditzearen beldurra uxatzen dio, eta batzuek trebezia ez galtzeko pintatu edo pianoa jotzen duten bezala, edo forman mantentzeko footing egiteari uzten ez zaion bezala, Matildak ez dio inoiz bakarrik egoteari uzten. Begoñarekin ere, bakarrik ez dagoela sentitu duen bakanetan, atzera egin eta bakartasun alarde bat egin du, ahalik eta trebezia handienarekin. Bere maitatzeko modua da hori, apur bat deserosoa, baina maitatzeko modu bat, finean. Begoñak ez du susmatu ere egiten, uste du elkarrekin gauza asko egingo dituztela. Baina Matilda Begoñaren alboan bakarrik sentituko ez balitz, ez litzateke bere albora gehiago joango,

nahiz eta Begoñarekin friboloarena eta nerabearena eta pikujale hasiberriarena egiten gustura dabilen, bakartasunean indartsu sentitzea bezalakorik ez dagoela uste du. Pasiorik handienak ezin du berdindu botere eta osotasun emozio hori, askatasun hori. Eta inoiz sentitu duenean, adibidez Paulekin behin edo bitan, agian bakardadea garai daitekeela betiko beste horrekin elkarturik, agian izan da segundo bateko kontua besterik ez, behin belaze elurtu batean oinez Paulen eskutik, katiuskak elurretan hondoratu eta maniobra barregarriak egiten hurrengo urratsa emateko, une horietan, zaurgarri sentitu da, ikaraturik.

Behin baino ez da bakarrik egon bakarrik egoten jakin gabe, eskola garaian izan zen. Balantzaka zihoan aitaren eskutik korridoreetan zehar. Matildak autobusa galdu zuen eta aitarekin joan zen eskolara autoz. Aitak ez zuen neskatoaren gela aurkitzen, baina Matildaren familian ez da inoiz ezjakintasuna edo babesgabezia nabarmendu behar, horregatik gaizki ikusia dago arrotzei ezer galdetzea, oporretan non dagoen halako kalea, supermerkatuan ba ote duten ha-

lako produktua. Jolas-garaia iritsi bitarte, aita eta Matilda korridoreko banku batean gelditu ziren eserita, zapatei begira. Txirrina jo eta berehala korrika hasi zen neskatoa eta gelakideen txilioetan aurkitu zuen babesa. Ez zuen atzera begiratu, eta etxerakoan aitak ez zion ezer aipatu. Aurrerantzean horretarako prestaturik egon behar du, ezin du entrenamendu egun bakar bat ere galdu.

Eguzkiak ez du behar bezala berotzen eta Matildak oinak sandalietan barneratu ditu atzera. Gustuko zuen aitarekin arrantzara joatea, kanposantu ondoko errekara, ipurdirik gabeko sagardo botila bat soka batekin helduta, amuarrainen zain egoten ziren, mutur berdea ur gainean, aita egunkaria leitzen, eta bera sokari helduta oso erne. Aitak sagardo botila bete bat izaten zuen arroken artean, eta amaitzen zitzaionean joateko garaia zela ulertzen zuen Matildak. Herrira itzulitakoan, laranja ura hartzera gonbidatzen zuen aitak, hitz hori erabiltzen zuen, *gonbidatu*, eta berak ardo kopa bat edaten zuen, gehienetan bi, isil-isilik bukatu arte.

– Aita –hasi da bere baitarako–, inoiz ez dut jakin zer esan, eta gaurkoan ere ez, noski, baina hemen naiz.

Jendeak soinua ateratzen du kanposantuko hartxintxarren gainean. Emakume batek eguzkilore bat jarri du harri ospelean, eta muxu eman du hatz puntetan, eta gero muxua ere harlauzara eraman nahian-edo han bermatu du eskua. Begoña ekarri du berriro bere baitara, berak hitz egingo lukeen moduan hitz egiten ahalegindu da, eta horretarako betaurrekoak jarri ditu buru gainean, eta oinak freskatu sandalietatik kanpora.

– Lanean ari naiz sos batzuk ateratzeko. Irailean logela bat alokatu nahi nuke. Amari ez diot oraindik ezer esan. Zer diozu? –bere barnerako galdera murmurikatu bezain pronto idiota sentitu da–. Esan nahi nizun, ulertzen zaitudala, ez didazula azalpenik zor, eta agian dagoeneko ez zara nire txikitako heroia, baina zaude lasai, nik ere ez dut dagoeneko heroirik behar.

Gero hautatutako hilarriari begira gelditu da, luzaz. Zurruna eta apala da, apenas irakur daitezke hildakoaren izen-deiturak. Aita maite

duela onartzea gustatzen zaio, ongi sentiarazten du, onarpen-opari bat da eta. Ez daki nola agurtu, baina argi dauka ez dituela muxukatutako hatz mamiak harriaren kontra bermatuko, halako erokeriarik, eta itzuliko naiz, esan dio.

Begoñarekin pentsatzen saiatu da, kanposantua atzean utzi nahian, baina goizeko bele zaharraren patilla hegalak ditu oraindik gogoan, eta sexu osteko hitz-jario profetikoa maitasunari buruz, maitasuna zentzurik biblikoenean, goiko ezpaina oraindik distirante zuela. Tristura eman dio. Begoñari ordez amari deitu dio afaltzera joango dela esanez, eta burdin hesirantz jo du, bitxilore koloretsuak banku gainean utzita, petalo batzuk lurrean, eskuak sueterraren aurreko patrikan lotuta.

Mobilean Begoña:

– Non zabiltza?

– Liburutegitik irten berri naiz.

– Afaldu nahi duzu nirekin, potxola?

– Amari esan diot etxera noala. Ostiraletik ez daki non nabilen.

– Ondo egiten duzu, amarekin egon behar duzu.

– Bai –erantzun dio Matildak elkarrizketa amaitzeko gogoz, hain usaindun barteko izerdi eta ezpainak.

– Potxola, amatxori zutaz hitz egin diot gaur, apur bat zoroa zarela, baina neska ona eta azkarra.

– Bai. Bihar bederatzietan hitz egingo dugu, sakelakoa hilzorian dut, Bego.

Itzali egin du, kariñorako segundo bakar bat gehiago utzi gabe, eta aldats behera jarraitu du, kantu bat ezpain artean dardarka, bitxiloreen tintura morea esku ahurretatik kentzen saiatuz, eguzkipeko bere itzal luzeari jarraituz, gero eta azkarrago, gero eta harrapagaitzago, gero eta etxetik hurbilago. Ez ditu etxeko giltzak erabiliko, txirrina joko du, etxera sartzean enkontrua naturalago egin aldera. Ama parez pare nahi du ate azpian, ez du etxetik zehar bere bila ibili nahi, muxuaren bila.

– Goiz etorri zara.

– Gose naiz eta.

– Bazkaldu al duzu?

– Bai.

– Non? –esan dio amak, eta erantzun ezaren susmoa berretsia gelditu aurretik gaineratu du–: Tomate entsalada eta antxoa albardatuak egin ditut afaltzeko. Tomateak Manueltxoren ortukoak dira.

Alabak harrikoan garbitu ditu esku moretuak eta amak berriro pintatzen hasi den galdetu dio, galdera egin orduko galdera egiteaz damuturik, ez zenioke pintatzeari utzi behar. Ondoren, hozkailuaren marmarra besterik ez da entzun sukaldean.

– Ez duzu egongelatik pasa behar? –galdetu dio, antxoen zilarra esku artean, erraiak pilatxo bat eginda harriaren bazter batean–. Gaur nahiko ongi etorri da.

Matildak sagar bat hartu du mahai gainetik, garbitu gabe hozka egin dio eta egongelarantz irten da. Ate izkinatik ikusi du, sofan luze etzanda, kaleko jantzien gainetik txabusina granatea, txapinen ordez zapatak.

– Gabon –esan dio Matildak, eta kosk egin dio sagarrari.

Aitak burua jaso du apur bat:

– Gabon –erantzun dio urrutiko ahots batez.

Matildak ez du atearen orpoa zeharkatu.

– Hemen afalduko duzu? –galdetu dio aitak, aldagailuaren gainean etzanda dagoela ohartuta, tramankuluaren bila eskuak txepelduta.

Matildak beste hozkada bat eman dio sagarrari, eta ahoa beteta erantzun du:

– Ez, joan beharra daukat.

Aitak, erantzuna entzun ez balu bezala, bila jarraitu du, beso baten gainean bermatuz lehendabizi gorputzaren zama, hanka baten gainean gero, gorputzak egindako zubipean eskuarekin haztatuz aldagailua.

Matilda amarengana joan da, patioko leihoan da, gorputz erdia ilunpean eta beste erdia argiztaturik, ohartu gabe alaba atzean duela.

– Banoa –esan du Matildak.

Ama iluntasunera bueltatu da, esekitokitik jasotako maindire zuria eskuetan.

– Ez duzu afaltzen gelditu behar? –eta astirik utzi gabe, gehitu du–: Lotara etorri behar duzu?

Matildak sagarraren azken haragi zatia ahoan bueltaka duela, zuztarra jaurti du patioko leihotik behera, amak errieta egingo ez diola jakitun. Maindirea tolesten lagundu ondoren,

muxu eman dio amari, eta egongelako ate orpotik agurtu du aita. Ez du erantzunik jaso, soilik zurrunga bat, eta bere heriotza desio izan du, ohi baino indar bortitzagoaz.

Atea itxi eta kanposantura abiatu da atzera. Bizirik zegoenean esan ez zizkionak esatera.

– Ixtera goaz –gaztigatu du zaindariak.

– Bost minutu besterik ez dira izango.

Bidetik Begoñari deitu dio, afaltzera gonbidatzen ote duen galdetzeko.

Nahiago nuke gezurrik ez esan

Gizonak bostekoa eman dio. Andrea parean eseri da, poltsa zangoen artean ipini eta orpoak agerian utzi ditu takoi baxua duten zapatetan. Gizonak betaurrekoen kristalen gainetik begiratu dio.

– Lasai zaude?

– Bai.

– Ur pixka bat?

– Ez.

– Kafea, tea...

– Ez.

– Esther Salarrue Arribalzaga.

– Bai.

– Lasai orduan?

– Baietz uste dut.

– Barka horrela hasteagatik: inoiz aborturik izan duzu?

– Ez.

– Hala ere jakingo duzu zein den prozedura.

– Ez.

– Duela bi urte arte abortua ez zegoen legeztaturik Estatuan. Hobeto esanda, legeak onar zezan paper bat sinatu behar zenuen abortua izan aurretik, esanez ez zenuela zure burua ume bat zaintzeko gai ikusten. Legearen zirrikituak profitatu, badakizu, zigorrak ekiditeko.

– Hemen antzeko zerbait egin behar dugu orduan.

– Bai. Batez ere zure sendiari begira.

– Jakina.

– Gaurkoa ez da xamurra izango. Galdera mordoa erantzun beharko duzu. Ez dago beste modurik.

– Ondo.

– Prest?

– Aurrera.

– Galdetegi honen bitartez frogatu beharko duzu benetan ez dagoela beste biderik.

– Ez naiz gezurrak esatera etorri.

– Baina esan ditzakezu.

– Ez da beharrezkoa izango.

– Ez duzu gezurra esateko ardurarik izan behar. Zure familiaren onerako izango da, ez ahaztu.

– Egin dezagun aurrera, mesedez.

– Ezkonduta?

– Bai.

– Seme-alabarik?

– Bi mutiko.

– Adina?

– Hamaika eta zazpi.

– Senarrak lanpostu finkoa du?

– Bai. Esportazio arduraduna da turbina enpresa batean.

– Asko bidaiatzen du.

– Bai.

– Horrek gauzak konplikatzen ditu. Zure gurasoak bizirik daude?

– Ama bai.

– Eta zure senarrarenak?

– Aita eta ama.

– Seme-alabekin harreman ona daukate aiton-amonek?

– Gure ama Malagara joan zen bizitzera txikiena jaio zen urtean, beraz ez du ia harremanik.

Senarraren gurasoek bilobekin izan ohi den harremana dute.

– Eta non bizi dira?

– Herrian.

– Zuk lanik egiten duzu?

– Irakaslea naiz, institutu batean. Euskara irakasten dut.

– Ikasgai polita.

– Inori ez zaio interesatzen, gaur egungo umeak idiotak dira.

– Gure bezeroen artean irakasle asko dago.

– Zuen bezero izandako batek hitz egin zidan zuei buruz. Julian Arozenak. Etika eta Filosofia irakasten zuen.

– Oroitzen dut, tipo zintzoa zen, azkarra.

– Jabetzei buruz hitz egin behar didazu orain.

– Bizi garen etxea nire gurasoena zen, eta eskriturak amaren izenean daude. Gero Landetan bungalow bat erosi genuen duela urte batzuk, eta hori senarra eta bion izenean dago.

– Eskritura horiek beharko nituzke. Eta gurasoen etxekoak ere bai.

– Ez dago arazorik.

– Zenbat metro karratu ditu bizi zareten etxeak?

– Ehun eta berrogeita hamar inguru.

– Autorik?

– Bi.

– Zein markakoak?

– Nirea Honda Civic eta senarrarena Renault Espace berri bat.

– Beste jabetzarik zure izenean?

– Uste dut garajea nire izenean dagoela.

– Benetan ez dakizula?

– Ez.

– Zenbat autorentzako lekua?

– Bi.

– Marra edo hormak?

– Hormak.

– Ondo... Psikologoarenean izan al zara inoiz?

– Behin, bigarrenez erditu eta gero.

– Zer dela eta?

– Ez dakit oso ondo. Nekaturik nengoen beti.

– Eta zerbait eman zizun hartzeko?

– Prozaca.

– Eta on egin zizun?

– Nondik begiratzen duzun...

– Zer esan nahi duzu?

– Medizinarekin errazagoa zitzaidan ohetik jaikitzea eta semeei gosaria prestatzea, bazkaria egitea eta hori dena, lanera joatea, adibidez.

– Eta alde txarra?

– Ezin nuen orgasmorik izan.

– Hori ona da.

– Nola?

– Galdetegiari buruz ari naiz, barkatu. Horregatik utzi zenuen Prozaca?

– Bai.

– Talde terapiarik?

– Ez.

– Erlijioa?

– Ez naiz sinestuna.

– Bizilagun elkarteko partaidea al zara?

– Ez.

– Politika?

– Anaia kartzelan daukat 2003tik, 2003ko abenduaren 24tik. Ez zen afaltzera ailegatu.

– Politikan sinesten duzu beraz.

– Sinetsi? Bederatzi urte daramatza espetxean, *sinetsi* ez da hitz egokia.

– Galdetegian *sinetsi* jartzen du.

– Orduan baietz jarri.

– Politikagintzan sinesten duzula?

– Hori da.

– Non dago anaia?

– Cadizen. Horregatik bizi da gure ama Malagan.

– Ikustera joaten zara?

– Geroz eta gutxiago.

– Jarraitu, interesgarria izan daiteke dosierrerako.

– Zenbat eta gutxiago joan orduan eta gutxiago sentitzen dut bere falta.

– Horrek balio dezake, balio dezake. Zenbat eta motibo gehiago izan orduan eta hobeto... Eta eskulanak, aerobika, soinketa, altzari berriztaketa...

– Ez.

– Ibiltzea, zaldiak, bizikleta, kirola, mendia...

– Ez.

– Afiziorik?

– Irakurketa.

– Hori ez dago galdetegian.

– Orduan bat ere ez.

– «Bizimolde alternatiboak» deitzen diren horietakoren bat jarraitzen duzu? Naturismoa, nudismoa, makrobiotika...?

– Elikadura asko zaintzen dut eta senarra eta biok nudismoa praktikatzen hasi ginen bigarren umea jaio bitartean. Baina bigarrena jaio zenean ez nintzen gauza jendaurrean gustura biluzik ibiltzeko, edertasuna galduta nuen. Eta orduan ohartu nintzen ez nintzela benetako nudista, exhibizio parte bat zuela nire biluzketak.

– Oso ederra zara oraindik.

– Utzi alde batera konplimenduak.

– Ekialdeko diziplinak ezagutzen dituzu?

– Yoga, tai chi edo antzekorik?

– Hori da.

– Garai batean, Prozaca hartzen hasi aurretik, yoga egiten hasi nintzen, lankide batek arrastaka eramanda. Ez nuen ikastaroa amaitu, loak hartzen ninduen klasean.

– Klaseetara joaten zinela dioen ziurtagiriren bat beharko genuke, edo yoga egiten zenuen tokiko helbidea gutxienez.

– Izango dut telefonoa nonbait. Ez zait jende hori gustatzen.

– Zergatik?

– Beti energiak gora eta behera, beste planeta batean biziko balira bezala, beti zilborra garbia edo zikina duten begira eta hurkoaren kakari jaramonik egin gabe.

– Eta hori txarra al da?

– Ez zait gustatzen.

– Yoga irakasle bat izan nuen bezero duela ez asko, emaztea jipoitzen hasia zela aitortu zidan, horregatik jo zuen gugana.

– Inoiz ez dira haserretzen, dena uler dezakete, ez naiz jende horretaz fio.

– Harreman ona duzu senarrarekin?

– Bai.

– Biolentzia fisiko edo psikologikorik?

– Ez.

– Fideltasuna?

– Nik dakidala bai.

– Zu fidela zara?

– Bai.

– Maite duzu?

– Estimua diot.

– Maite zaituela uste duzu?

– Galdera hori galdetegian al dator?

– Ez, barka, jakinmina nuen. Semeekin zer harreman mota du?

– Ondo konpontzen da biekin, aita normal bat da, ahalik eta gutxien egoten da haiekin, ez aspertzeko, baina maite ditu.

– Inoiz jo ditu?

– Ipurdikoak soilik.

– Arazo psikologikorik?

– Ez, gizon orekatua da, gehiegi.

– Gehiegi? Oreka ezin da gehiegizkoa izan.

– Bere kasuan bai.

– Alkohola?

– Gustatzen zaio edatea eta aitzakiak bilatzen ditu horretarako.

– Baina ez da arazoa, ezta?

– Nola begiratzen duzun. Gaur egun ez, baina gure harremanean eragina izan du.

– Axola ez bazaizu politikagintzan sinesten ez duzula jarriko dugu. Ados?

– Nahiago nuke gezurrik ez esan.

– Seguruaren afera erraztearren diot, semeen etorkizuna hobea izan dadin. Ekonomikoki behintzat.

– Ez dut nahi, egia esan nahi dut.

– Batzuetan egia ez da biderik egokiena. Nik badakit nola neurtzen dituzten Madrilen erantzun hauek, egidazu kasu, esazu ez duzula politikagintzan sinesten.

– Ez, egingo dudan azken gauza da, zintzoa izan nahi dut.

– Nahi duzuna. Zenbat eta bizimolde edo bizi alternatiba gehiagok huts egin dizutela jarri orduan eta hobeto zure sendiarentzat, ekonomikoki behintzat.

– Ez aldatu ezer.

– Orain irakurri hau eta ados baldin bazaude sinadura ipini.

– Ez nago ados.

– Zergatik?

– Hala ere aurrera egin nahi dut.

– Zergatik ez zaude ados?

– Ez dut nire burua gai ikusten «seme-alabei kalteak sortzeko edo beraien zaintza deskuidatzeko», eta senarrarekin berdin.

– Orduan zergatik jo duzu gugana?

– Erantzuna ez zaio zure galdetegiari egokitzen.

– Ez duzu uste gaur hona etortzeko ausardiarik bildu izan ez bazenu, egun batean semeen gaineko ardura ez zenukeela jasango?

– Ez.

– Baina aurrera jarraitu nahi baduzu ados zaudela jarri beharko duzu.

– Ez zaizkit esaldi horiek gustatu.

– Utz ezazu koherentzia egun handirako. Esan dizut lehenago legearen zirrikituak baliatu behar ditugula, abortuetan bezala.

– Noiz egingo dugu?

– Egutegia aztertu behar da.

– Umeen oporrak profitatu nahi nituzke, eskolara hasten direnean konplikatuago izango da. Txikiena solfeora doa eta bestea eskubaloira, eta irailerako bi aste baino ez dira gelditzen.

– Lasai, horretaz ere gu arduratuko gara. Badakizu txosten honen oniritzia jaso behar dugula lehenik, Madrilgo Osasun Ministerioaren zigilurik gabe ezin dugu aurrera egin. Lasai egon zaitez

semeengatik, behar den egunean Izaskun joango zaie bila, haur psikologian lizentziaduna da. Baina zehaztasun horiei buruz hitz egingo dugu gero.

– Zein egun da egokiena?

– Ostiral arratsalde bat. Gero erakutsiko dizkizut estatistikak.

– Eta nola egingo dugu?

– Zure profilari ongien egokitzen zaizkion metodoak hauexek dira: 80 bat kodeina pilula edo 100 bat valium. Pilulok goragalea sortzen dutenez, bidaiatzeko-eta erabiltzen diren zorabioaren aurkako pastillak ere emango genizkizuke, gaindosia izan baino ordu laurden lehenago hartu beharko zenituzke. Kodeinarekin 10-15 minututan konortea galtzen da eta hiru ordu laurdenetan heriotza heldu da. Oso eraginkorra da. Egokiena baraurik zaudela hartzea da, plastikozko poltsa bat buruan, eta oraindik hobeto, alkoholak lagunduta.

– Ez dut alkoholik edaten.

– Ba ondo legoke pastillok alkoholak lagunduta hartuko bazenitu. Aseguru etxearekin akordio hobeak lortze aldera diot.

– Ez nuke gai kimikorik hartu nahi.

– Tira, orduan zailagoa izango da zuretzat metodo egokia aurkitzea: estoldak eta ubideak garbitzeko likidoak, nitrogenoa, potasio kloruroa, adelfa, rotenonea eta zianuroa ezin dituzu erabili.

– Berdin zait ausartagoentzat den metodo bat topatzen badugu.

– Diskrezioa eta espektakuluaren artean dagoen metodoa jauziarena da. Seguruena ere bada. Maite psikologoa da eta berak eramango zintuzke zuk aukeratutako parajeraino. Begira, hemen jauzi egiteko paisaje aukera polita daukazu, garabiak barne.

– %100eko eraginkortasuna duela egia da?

– Jauzi egin duten guztiak hil dira, eta metodoa aukeratu dutenen %... itxaron pixka bat, ordenagailuan begiratuko dut... Metodo hau aukeratu dutenen %72k egin du jauzi.

– Asko da.

– Bai, asko da.

– Ez dut bertigorik, baina apur bat biolentoa iruditzen zait... Demagun ez naizela hiltzen eta...

– Metodo honek bi aldiz jauzi egiteko aukera bermatzen du. Baina orain arte inork ez du bigarren aukera erabiltzeko betarik izan. Metodo fina da. Dotorea. Klasikoa. Duina. Zure heriotza izango den horri *vis a vis* begiratzeko modua, jauzi batez, esna, goragalerik gabe, mozkorrik gabe, beso zabalik...

– Bai.

– Zuk harrapatuko duzu heriotza eta ez heriotzak zu.

– Ados. Katalogoa ikusi nahiko nuke berriro.

– Beste aukera bat ere badago. Hori bai, beltzean ordaindu beharko zenuke, eta gainera garestiagoa da.

– Ez dut diru arazorik.

– Askoz garestiagoa da.

– Esan.

– Istripu baten antza eman diezaiokegu. Metodo hori, noski, ez dago katalogoan kontenplaturik. Madrilgo ikuskatzaileak etortzen zaizkigu sei hilabetetik behin eta badakizu...

– Ez.

– Ez?

– Ez.

– Askoz garestiagoa da zuretzat, baina zure semeek askoz ere diru gehiago jasoko lukete aseguru etxetik.

– Ez.

– Ondo da.

– Argi geratzea nahi dut suizidioa izan dela.

– Ondo da.

– Bizitzaren gaineko erabakiak hartzeko gai banaizela.

– Jauziarena metodo egokia iruditzen zait. Metodo onena aukeratu duzu, dudarik gabe.

– Zerbait gehiago?

– Aurrera egin baino lehen, galdera bat erantzun behar didazu. Damurako betarik utzi nahi duzu? Hori ere inportantea da, ez bakarrik prezioan baizik eta baita metodoaren eraginkortasunean ere.

– Ez, ez dut damurako betarik utzi nahi.

– Horrek garestitu egiten du zerbitzua, %20.

– Ez dago arazorik.

– Orduan ondokoa gomendatuko nizuke. Maite, psikologoa, AEBetan izan da coaching-a ikasten eta oso ona da, bikaina esango nuke. Damurako hauturik utzi ez dutenen... itxaron apur

bat, ordenagailuan begiratuko dut... damurako hauturik utzi ez dutenen %98 hil egin da. Damurako hautua utzi dutenen %66 bakarrik hil da, ordea.

– %98 portzentaje ona da.

– Oso ona.

– Eta %2?

– Barkatu?

– Damurako hauturik utzi ez zutenen %2k nola lortu zuen bizirik jarraitzea?

– Maiteren errua izan zen. Bezeroarekin maitemindu zen, eta ez zion jauzi egiten utzi.

– Beraz metodo hau ere ez da infaliblea.

– Ez, maiteminarena gerta liteke. Baina zure kasuan infaliblea izango da.

– Eskatu dizkizudan agiriak ekartzen dituzunean, Madrilera bidaliko dugu dena nik prestatutako txosten batekin batera. Aurrera egiteko baimena jaso arte ez dugu mugimendurik egingo.

– Zenbat denbora esan nahi du horrek?

– Kasuaren arabera izan ohi da. Zurean motibazio eskasa topa dezakete, eta kasu horretan

atenuanteak bilatu beharko ditugu, ez diezu erraza jarri.

– Zenbat denbora.

– Hilabete inguru.

– Ez da asko.

– Ondo zaude?

– Oso ondo.

– Pozten naiz, Esther. Deituko dizut. Bitartean ondo profitatu denbora. Oraindik atzera egiteko garaiz zabiltza. Hurrengo zitan %100a ordaindu beharko didazu, eta atzera eginez gero gestoriak %85a itzuliko dizu.

– Ez dut atzera egingo, zaude lasai.

Aterkia hartu eta euripera irten da andrea. Gainean lehertzen zaizkion tantek markatzen diote ibilera.

Gizonak kalera begiratu du leihotik, «ipurdi ona dauka gero», esan du bere kabutan, purutxoa piztuta.

Ez du katu bat balio

Jasateko gai garen guztia merezi dugu.
ELFRIEDE JELINEK

1

Esnatzean iratzargailua jotzen utzi du, minutu bat edo bi. Ohean ez da inor gehiago, noiztik ez daki. Hankartean Theloniousen isatsaren kilimakurrak. Joanak zimiko egin dio katuari buztanaren puntan, eguneroko harrapaketa jolasak jaikiaraziko duelakoan, Theloniousen hozken bertigoak; Thelonious bere laguna, esnatzen laguntzen duen bakarra. Baina zimikoak ez du bertigorik ekarri gaur eta katuaren hankatik egin du tiraka. Biguna. Joanak itoari bularrean sakatu dio, sorospenean ikasi bezala, baina beldur izan du hezurrak hautsi eta akabatzekoa. Orduantxe akordatu da heriotzarekin. Orduantxe onartu du ezin dela bi aldiz hil. Theloniousen heriotza jaso du, hanken etsipena aldarri, inoiz baino untxia-

go, letaginak ahotik at. Belarriak eta burua, bizkarra eta paparra laztandu dizkio katuari, bigunaren arrarotasunetik ihes egin nahian, baina hilotzak zor duen errespetuari ere ez dio izkin egin nahi, Thelonious da, finean, eta berogailu gainean ipini du, malkoak xukatu ditu eta lo-soinekoa jantzita komitiba buruaren antza hartu du. Thelonious, Eñauten urtebetetze oparia, Ondo etorriko zaizu, kariño, edo On egingo dizu, alargundu berri den zaharrari perikitoa oparitzen zaion bezala. Iratzargailuak bost minuturoko oinazea sortzen jarraitzen du. Hirugarren joaldian sukaldeko iratzargailua martxan ipintzen da, Mao Zedongen aurpegia esferan eta bi nekazari igitaia eta mailua astintzen, Txina osoa aharrausika. Katua hartu du ahalik eta zeremoniatsuen, begi bat zabaldu dio, epel dago. Zapata kaxa batean sartu du, sukaldeko trapua beztidura, eta Eñauti deitu dio lantokira:

– Zu joan orduko hilik behar zuen, ohartu egin beharko zenukeen.

– Ez naiz ohartu.

– Lurperatu egin nahi nuke, baina hori egitea umekeria den galdetu nahi dizut lehenik.

– Ez dut ulertzen nola izan den, zanpatu egingo zenuen.

– Zanpatu eta akabatu. Lotarako pilulak izan dira, seko uzten naute.

– Pilulak hartu aurretik ere ezin izaten zinen esnatu, ez dakit akordatzen zaren.

– Ez zen gauza bera. Lur jota nago, Eñaut, ezin zara lanetik irten?

Naturaltasunez jokatzen saiatu da Joana. Bere osasunagatik kezkatuta sumatzen du Eñaut eta ez dio motibo gehiago eman nahi. Hozkailuan sartu du. Bera etorri arte itxaron nahi du lur emateko. Baina gosaritarako esnea hartzera hurbildu denean, berriz ikusi duenean aguakatea, soia, uhaza, arrautzen artean hilkutxa, atzera egin du. Eta ezin izan du gogoeta baztertu: jendeak zakarretara botatzen ditu animalia hilak, eta gero seme-alabei zerura joan direla esaten die, eta elkarbizitzak iraun duen artean animaliaren usaina onartzeko modukoa izan bada, eta sofarik hondatu ez badu, eta oharak inoren loa eragotzi ez badu, agian, agian bakarrik, beste txakur edo katu edo dortoka bat erosiko diete seme-alabei, aurrekoak zituen defizitak gaindi-

tuz beti ere: ile asko botatzen bazuen, ile motzeko bat; mugituegia bazen, otzanago bat; umeen mundu ikuskera aldrebes zezakeen estalketak egiteko ohitura bazuen, zikiratutako bat.

Madalenak esnetan busti bitartean negar egin du.

Tabako usaina gorabehera, bezperako arropak jantzi ditu. Arrautza bat kraskatu du eta gorringoa katiluaren kontra lehertu da, bi koilarakada bete azukre, kina txorrotada bat eta hasieran gorrotatu baina dagoeneko maitatzen hasia den brebajea irentsi du, izebaren errezeta. Hortzak garbitzea ahaztuta, lanerako bidean da. Ezin du gogotik erauzi heriotzaren sinplezia.

2

Gaur ere belu da. Nagusiak kafe katilua jasoz agurtu du. Joanak ez dio azalpenik eman, zertarako. Gaur ere berandu, esan dio. Iritsi orduko ugazabak post-it-ez estali du Joanaren ordenagailua, bakar batean jar zitekeena zazpi post-it-etan idatziz, hogeita bi minutuko beranta paper

deigarriz azpimarratuz. Joanak, Windowsaren ongi etorriari erantzun dio begi keinu batez. Nagusia algaraka entzun du telefonotik hizketan, anaiarekin erabiltzen duen doinua da. Joanarekin erabili izan zuen antzeko doinua inoiz, txinpartaz beterikoa. Orain ez du doinurik. Etorri zaio zerrenda batzuekin. Alfabetikoki ordenatzeko. 117 orrialde bete izen. Ordenagailuak berak egin lezake baina artxiboa galdu zaio. Joanak badaki gezurra dena. Hogeita bi minutuengatik da, ez da zigor handia eskolan 1.000 bider idatzi behar zuten esaldiaren ondoan. Beste hiru lankideak heldu dira. Haiek ordubete geroago dute sarrera ordua. Nagusiaren bulegoan sartu direnean, algarak zenbatu ditu Joanak: Mikelek 3, Marijok 2, Estebanek 0. Mikelek jarraitzen du rankinaren gailurrean. Inguruko idazmahaiak habitatu dituzte. Katuarena kontatuko dio gero Estebani, kafe orduan, berak txakurra dauka eta ulertuko du. Nagusiak bulegora joateko deitu dio telefonoz. Algara bat lapurtu nahiko dio, baina Joana prest dago tinko eusteko. Zerrenda dataren arabera ere ordenatu behar duzula esatea ahaztu zait, esan dio orduan. Joanak nagusiari kableak ikusi

izana iruditu zaio, kamixetaren lepoaren azpitik. Nagusiak lepoa atondu du. Garaiz heltzeko ahalegina egin behar duzu, Joana.

3

Horrela dagoenean Be-bopera joan ohi da. Ez da izan zena melomania neoliberalismora plegatu zenetik. Nahiz eta Dizzy Gillespieren globoak aurpegian, nahiz eta Aretha Franklinen hortzak hormetan, Dire Straits eta Joaquin Sabina bafleetan. Knopflerren ahotsa aditu duenean triste sentitu da. Ardoa edaten du horrela dagoenean, eta mahaitxo ilunen bueltan mokoka ari diren bikoteak begiratzen ditu, bata bestearen ezpainetatik ogi papurrak jaten. Itxaroten du, gehiago ilundu arte. Zaila zaio kalkulatzea noiz duen zeruak itsasoarekin bat egiten. Batzuetan hori baino lehen irteten da Be-bopetik, eta barandara jaurtiko du gorputza, zeruaren beltza eta itsasoaren beltzaren zain, beltz bakar horren esperoan, eta etorri artean begiak erdi itxiko ditu, bi masen arteko marra deuseztuz. Beltzak, bere

neurrira ekartzen du Joana, munduan kokatzen du, iratzeen, izkiren, izakien pare. Batzuetan gertatzen zaio. Heldulekua galtzen du, tamaina. Adibidez, larrutan ari denean, bi animalia ikusten ditu estaltze lanetan eta Natura kateko ahots ezti horietako bat entzuten: «Emeak hankak zabaldu eta arrak estaltzen utziko dio, larrutaldiak minutu eskas iraungo du».

4

Nagusia akabatzea, bere haragia labeak errauts bilakatu edo zizareek jan eta kaka itxurarekin kanporatzea. Eta zizare horiek kaka bihurturiko nagusia berriro jatea, okitu arte, eta berriro libratu, kaka fin amaigabe bat. Hori zure bikotekideari aitortzea eta honek katu bat oparitzea trukean, tori, kariño, ondo etorriko zaizu. Akabatzeko gogo hori da benetakoa den bakarra gaur, orain, beltzari begira, ezerezak nonbait kokatzen naueneko une honetan, Be-bopetik Manaren kantu bat datorren arren. Horren kontrako pilulak. Kimikak egia ezaba ote dezake. Zazpi urte

gizon berarekin, zazpi urteko egunerokotasuna eta behin zerbait esateko izan eta ezin. Behin benekotasuna ukitu ahal eta Eñautek jasan ez. Sei urte lantoki horretan, administrazio laguntzaile, sei urte algaratxo horiek entzuten, sei urte. Sei urteko jazarpena nagusiaren mahai azpian lau hanketan ez jartzeagatik. Zentzu metaforikoan, gainera. Biologikoan balitz, tu eginez ezabatuko litzateke lixiba zaporea. Eta okerrena: goizeroko algaratxoak.

Marxi buruzko liburu bat best-sellerren artean. Marxekin hitz egin nahiko nuke, bizarrean kilima batzuk egin, eta aizu, esadazu zeozer, zer egin behar dut sentimendu honekin inor ez badut aldean, norekin egin dialektika bakarrik nagoenean, norekin bilakatu klasekide klaseko baztertua naizenean. Post-it-a jarri nahi diot bihar pantailan: Akabatu egingo zaitut. Zoraturik egotea al da hau. XX. mende hasieran erreferente bihurtuko nintzateke ekintza horrengatik, feministek ikono bihurtuko nindukete, bekaren bat ere lortuko luke norbaitek nire biografia idazteko. Diru publikoa nire azaña edertzeko. Baina *trastorno adaptativo al entorno laboral con an-*

siedad, idatzi du medikuak. Txipiroietan egon nahi nuke txintxorro horietako batean, gizon horri galdetu, ahurrak pitak urratuta dituen horri, kriseiluaren argipean, berak ere erotu egin naizela pentsatzen ote duen.

5

Esteban izan zuen burkide hasieran: duintasuna, errespetua, lan-baldintzak izaten zituzten mintzagai. Gutxika, hitz horiek hipoteka, Kutxa, Eroski bidaiak, Salomon eskiak bilakatuz joan ziren. Estebanek nagusiaren aurrean lehen algara egin zuenekoa oroitzen du. Astelehen goizez izan zen, futbolean ikasitako txiste baten kontura. Handik hamabost egunera, Estebanek Anoetarako sarrera bat oparitu zion nagusiari, anaiarena omen.

Labanak, pistolak, balazten manipulazioa, zianuroa. Dena da telefilmeko. Ez du halakorik nahi, baina ez dio heriotza naturalik desio, justiziazko bat baizik. Thelonious hilik da eta gizon horrek ez du katu bat balio. Ardoak loratu egiten

du Joana, ez daki bizien edo hildakoen mundutik gertuago jartzen duen, baina nonbaitetik gertuago sikiera. Tabernako leihotik begiratzen du, iluntzen hasia da eta barandara doa pauso azkarrez. Kresalak ilea hanpatzen dio. Bikoteek footing egiten dute bidegorritik, etxeratutakoan dutxa eta entsalada hartuko dute, eta biharamunean lanerako egongo dira. Joanak ez du horrelako bizi perspektibarik. Berak itsasoa eta zerua bat egiten direneko unea itxaroten du soilik, eta etorri denean, irribarre batekin egin dio oles, ardozko jauzi bat eztarrian gora.

6

Menditik itzuli gara, Thelonious lurperatzetik. Ez da bereziki tristea izan. Eñaut maitagarri egon da, berak egin du zuloa eta berak estali. Baina, ez da modurik, Eñautek ere pilulak hartzea nahi du, berak ere bai. Maiatzaren leheneko manifestaldia, hori bai. Ikurrinak eta trapu zahar gehiago, hori ere bai, baina gero pilulak hartzea nahi du.

– Bihar sindikatura joango gara eta *mobbing* salaketa jarriko diogu putaseme horri.

– Eraso sexualen bat egon izana nahiago nuke.

– Ez esan txorakeriarik, Joana.

– Hori egon izan balitz ulertuko zenukete.

– Bihar sindikatura joango gara informazio eske, eta gero ikusiko dugu zer egin.

– Ez dut hori nahi.

– Maitea, esan didate zakurtegian katu pertsa mordoa dagoela, beti nahi izan duzu katu pertsa bat.

7

Bulegora deitu du nagusiak, gurpila zulatu zaio eta argibideak eman ditu norbaitek garabiari esan diezaion non dagoen. Mikelek bete du agindua. Joanak irteera ordua dauka eta biribilgunean ikusi ditu, garabiko gizonaren ondoan gurpil berria jartzen. Klaxona jo dio, buila handia sortu du, nagusia, errepide bazterrean belauniko, begira gelditu zaio eta Joanak emozio handiz

egin dio agur. Nagusiak eskua eragin du. Irratian *Kind of blue*. Joanak bolumena igo eta tronpeta jarraitu du eztarria urratu arte. Gaur ez du itsasoari ezer galdetzeko beharrik.

Eñaut etxera iritsi bitartean oinetako azkazalak pintatu ditu. Iltzeen zarata entzun du gonako patrikan. Hatz batekin iltze baten punta estutu du, ziztatu arte, gero ahora eraman du eta herdoilaren zaporea lehertu zaio aho-sabaian. Ez daki iltzearena edo odolarena den herdoila.

Eñaut dortoka birekin etorri da. Jendeak komun zulotik behera botatzen ei ditu eta zikinkeriak gizenduta heltzen omen dira estoldetara. Bi agure dirudite, harrizko begiekin, Eros eta Thanatos.

– Hauek ez dute araldirik izaten.

8

Sindikatuan baja hartzeko gomendatu diote. Gaztea da sindikatuko kidea, patillak eta belarritako bana. Gibelean afixa bat: «Trabajador, hazte oír». Bere ordenagailua lotan da, eta pan-

tailan, tarteka, marrazo bat agertzen da koral artean igerian, buztana astinduz. Marrazo otzana iruditu zaio Joanari. Gazteak paper batzuk begiratzen ditu hizketan jarraitzen duen bitartean. Nik sinesten zaitut, baina froga gehiago behar ditugu. Gainera, goizetan garaiz heltzen hasi beharko zinateke, aitzakiarik ez emateko nagusiari. Frogaren bat lortu behar duzu, baina seguru zaude epaitegietara jo nahi duzula?

9

Haurra zenean amonak prestatzen zion bazkaria. Joanak aza gorroto zuen eta amonak bazekien, baina hala ere ez zegoen gutizietarako. Hilko bazina hobe, esan zion behin Joanak. Amonak eskua hartu eta paelan sartu zion, sutan jarri berria zegoen. Neskari ahurra gorritu zitzaion, baba bat irten zitzaion gaua etorri baino lehen, baina ez zion ezer esan amari. Biharamunean, amonak berak zulatu zion baba jostorratzaz. Gero olioa jarri zion zulotxoan eta aza platerkada epela jarri zion begien aurrean. Handik hila-

bete gutxira hil zen, eta Joana errudun sentitu zen errudun sentitu ez zelako. Amonak dirua Testamentu Berriaren orrien artean gordetzen zuen, baina Joanak ez zion inoiz sosik lapurtu.

Orain ere heriotza opa du, ez da erruduntasunaren beldur, erruduntasun gabezia horren beldur baizik. Psikosia, dio *Lacan hasiberrientzat* liburuxkak. Baina Joana ez da hasiberria.

10

Hamasei minutuko atzerapenarekin ailegatu da gaur. Nagusiak ordea ez dio deus esan. Kafe orduan, Mikelek bezperan bezero batekin izandako gatazkaz hitz egiten die. Mikelek gatazkak sortzen ditu bezeroekin, gero nagusiari kontatzeko. Mikelek txinalak janzten ditu lanerako, nagusiak bezala. Bulegoa nire etxea da, egin nahi dute aldarri ugazabaren oinek. Bulegoa gure etxea da, Mikelenek. Marijok karpeta garraio etengabean jarraitzen du. Orriak hartzen ditu pasieran, eta batez ere, oso azkar ibiltzen da, oso azkar, eta ileak uxatzen ditu aurpegitik, edo euli

imajinarioak. Joanak esan egin nahi dio, nora zoaz hain azkar karpeta hutsekin. Marijok euli bat harrapatu du eskukada batez, edo ile xerlo bat, begira-begira gelditu zaio. Estebanek ezkutuan bidaltzen ditu sms-ak, sakelakoa izterren artean jarrita.

– Esan lasai neskari maite duzula, motel.

Joanaren hitzek lotsarazi egin dute.

Mikelek faxez bidali dizkio anaia abokatuari ugazabaren argiketa agiriak.

– Nire anaia oso ona da, Aldundiari salaketa jartzeko esango dizula uste dut. Sos batzuk aterako dituzu, ikusiko duzu.

Eta ugazabak kafe gehiago egin du, Joana bidali du azukrea erostera. Itzuli denean, kanabera azukrea eskatu diola esan dio, eta ez azukre zuria. Denak Joanari begira gelditu dira, koilaratxoak eskuetan.

Azukrea erostetik itzulitakoan post-it berri bat aurkitu du pantailaren erdian. Nagusia eta Joana elkarri begira gelditu dira. Joanari bihotza azkartu zaio eta gizonaren ezpain marroiak arakatu ditu, eta zalantza sartu zaio, kolore hori lan orduetan edandako kafeen eraginez ote den edo

berezkoa. Nazka sentitu du, eta oihu egiteko gogoa.

11

Lerrokatzen ditu soldaduak, poliziak, gerrillariak. Ikusten ditu trintxerak, kartzelak, sasia. Telebistan gertatzen diren gerrez gain, arbasoen gerrak. Arbasoek haien eskuekin odolustutakoak. Tolerantziak, errespetuak, demokraziak lako hitzek hiritarren barne munduak alferrikaldu aurretiko garaia du gogoan. Hilketa eskubidea. Ez da hain zaila izango, norbait akabatu duen jende andana dagoenean hor zehar, goizetan kruasana eta laranja ura gosaldu ostean bilobak haurtzaindegira eramaten. Noizbait esku odoleztatu izandako horiek guztiak, lokamuts, infernu, eroetxerik gabe bizi direnen kuraia senti dezake zainetan. Estebanek emandako futbol sarrera tolesten ikusi du nagusia.

Eñaut ez da oraindik etxera heldu. Telebistan ugazabak egon behar zuen futbol partida, gola, zaleak jauzika.

– Zer egin du Realak?

– Irabazi.

– Zenbat?

– Bat eta huts.

– Aupa! Afaria? Eta lan kontuak?

– Gaur hobexeago.

– Salaketaren gaineko erabakirik hartu al duzu?

– Bihar hitz egingo dugu, Eñaut, pilulek zozotuta uzten naute.

Dortokak begira-begira gelditu zaizkio.

12

Goizean, lanera joan ordez, etxe ondoko kafetegian gosaldu du, kruasana eta laranja ura. Estebanek telefonoz hots egin dionean, ez du hartu. Be-bop zabaldu arte itsasoari begira egon da, korrikalarien urratsekin batera urrunduz Joanaren ezinegona. Eguerdia da. Alkohol usaineko jarraitzaile txuri-urdinak auto batean lo, turuta hots errari bat.

Pertsianaren orroarekin batera, ardoa eskatu du Be-bopen. Tabernek egunez ez dirudite gaueko berak. Beste ardo bat. Bozgorailuetatik Kenny G.

Begiratua txepelduta irten da tabernatik. Lainoak itsas azalean pulunpan. Kaioen garrasiak ugazabarenak. Begiak zarratzen ditu, beltzaren bila. Goizeko hamaikak dira, zerua azalera itsasten zaio eta ezin du jasan. Estebanek deitu dio, berriro:

– Joana, non zabiltza?

– Botaka eman dut gaua, bulegora deitu nahi nuen baina esnatu naizenean ez dut indarrik bildu. Nagusiak zerbait esan du ala?

– Zerbait gertatu da Romanekin.

– Zer?

– Partidura joateko gelditua nengoen baina ez zen ailegatu. Garbitzaileak aurkitu zuen bulegoan botata, ez dakite zer izan den baina larri dago.

Barandan jarrita, oka egin du, gozo. Kaio bat zikinean mokoka. Argitasunak okitzen du Joana. Korrikalari batek gerritik heldu du, xiratik musuzapi bat atera eta muturra garbitu dio. Gizon

zahar bat da, burua arradaturik darama, mp3aren kableak patrikatik zintzilik dauzka, Joanak identifikatzen ez duen musika klasikoa entzun daiteke.

– Ondo al zaude, neska?

Taupadak kopetako zainetatik atera beharrean ditu. Joanak besarkatu egin du gizona, gizonak ilea laztandu dio:

– Nonbaitera eraman zaitzaket?

– Zerbait jan nahiko nuke.

Elkarrengana bilduta gelditu dira, barandan bermaturik. Joanak eskuak behatu dizkio, iletxoak, azkazalak, eta inoiz odoleztaturik egon ote diren, inoiz armarik jaso ote duten zalantza piztu zaio.

– Zenbat urte dituzu?

– Hirurogeita hamaika –erantzun dio zaharrak harrotasunez.

Joanak kenketa egin du, 36an jaio berria behar zuen beraz. Gonbita onartu aurretik egin behar zion galdera, baina bera beti berandu. Joanak gizonaren izerdi usain garbia sentitu ahal izan du bizkarra ferekatu dionean.

– Joango gara?

Kaioen garrasiak ugazabarenak.

Hirugarren oparia

Arrotza egin zaio aireportuaren zoko batean, metalaren erdian, eguzkiak argitu eta haizeak harrotzen duen ikurrina, eta birikak txiki gelditu zaizkio ikuskizunarekin. Berriro da lau urte lehenago gurasoen etxea utzi zuen neskatoa, baina mendi eta lur usainak galduta.

Etxera deitu du, hiru bider, amak erantzun duen arte, hilabeteak hitzik ahoskatu gabe dirudienaren ahotsaz.

– Iritsi zara orduan?

– Bai. Galdeiozu aitari nire bila etor daitekeen Zarautzera.

– Galdetuko diot. Bost minutu barru berriro deitu, katxarro horietara deitzea garesti irteten da-eta.

Zarautzera iritsi bezain pronto aita agertu da Expressaren barruan, atzealdea zakuz beterik.

– Igo –esan dio ingude gaineko mailukada hotsez.

Irratian Ganbara taldearen balada bat.

– Plakatu haiz.

– Aspaldian ikusi gabe –erantzun dio alabak hiru kolpetan, eta gero ez da kasik ezer entzun errementerian, sugar saiatuak soilik labetik ihes egin nahian.

Saioak hanken artean helduta darama maleta, eta maldan gora zanbuluka doan paisaje berdeari begiratzen dio, mendixketan jasotako etxe trinkoei, gaztainaz kargaturiko adar batek autoaren aurkako talkaz menia apurtu duenean.

– Osaba antzarak akabatzen utzi dinat. Azkenaldian langile zabilen eta aprobetxatu egin behar!

Herrira iristeko azken maldan gaztaina gudarosteak oldartu zaizkie, arantzak Saioa eta aitari itzulita.

– Bihar gaztainak biltzera etorri behar dinat.

Saioak ulertu du gonbidapen bat dela.

– Londonen ez dago gaztainarik, ba al zenekien?

Aitak balazta zanpatu du, eta furgoneta herriko plazako aieka batean geldiarazi.

– Ikusi al dun? –kultur etxe bihurturiko Jauregi Zaharraren atarian eraikitako aluminio eta beirazko igogailua erakutsi dio–. Modernoa.

Saioak ulertu du, aitak gustatuko zaiolakoan erakutsi diola igogailua, eta plazer eman nahi izan diola, nahiz eta badakien aitari higuingarria iruditzen zaiola, Jauregi Zaharrean halako espanturik.

– London ematen du.

– Urte hasieran jarri zitenan. Etxe asko egin nahi ditizten. Modan jarriko dun herria.

– Moda-modan.

Saioa ohartu da ezer ez dela aldatu aitaren iseka airea, bere iseka airea, ezer ez.

– Aurrerantzean gazteek ez diten Ingalaterrara alde egin beharko.

Expressaren balaztek garrasi egin dute: etxea du parez pare, zuri eta ilun, berde eta heze. Ama eta osaba atarian dira, ama gomazko goanteak erantzi gabe, osaba ganibeta eskuan.

– Ikusi Rogelio –esan dio aitak Saioari antzara lohitua erakutsiz, eta bat-batean izen horrek gordetako unibertsoak eztanda egin dio. Soroan korrika zoroan, antzara erraldoi bat lepoturik, bi-

ziaren azken bulkadak lumatza odolduan, antzara txikiago bat segika duela.

– Emaiok! –oihu egin du osabak aitari.

– Plakatu zara –esan dio amak, Saioaren oinetan etzan denean antzara dekapitatua, sabelean oraindik bizia. Berea izan da lehen muxua, estua eta hezea–. Eta uztai hori?

Saioak sudurra zimurtu du eta behiak bezala egin du orro.

– Neska hau!

– Zer moduz dago señorita? –esan dio osabak, mahoizko galtzetan xukatuz eskuetako gorria, eta gero atximurka egin dio masailean; hainbesteko energiaz Saioari sudurreko uztaia dilindan gelditu zaio.

– Afari-merienda prestatu dugu.

Aitak hortzen arteko karraskila adarra ahoaren bestaldera eramanez segizioari buruzagitza jarri dio, iluna garaitzen ari den belarraren gainetik. Atzean utzi dituzte motzondo etsituak. Sukaldean gazta eta lukainka mutur bat jaten ari diren bitartean, amak ur irakinetan hondoratu du Rogelio, uzki horitua bistan, eta lumatzen joan da, kendutako luma sorta bakoitzaren ostean male-

ta askatu ezin duen alabari txeraz begiratuz. Aita-osabak mahaiaren bueltan dira, dena zain eta izerdi.

– Ohera noa, leher eginda nago.

– Osabaren logela patatarako erabili dugu, humedadeagatik, aitonarena txukundu dizut –erantzun dio amak.

– Ni zurean geldituko naiz –esan du osabak eta atximurka egin dio onik utzitako masailean.

Hil zenetik gutxitan aipatzen dute aitona. Aitaren aita zen baina amak zaindu zuen hil aurreko hemeretzi urteetan. Gangrenak hankak janak zizkion arren, batailak irabaztera ohitutako jeneral baten antzera gobernatzen zuen etxea zaharrak. Gero, gehiago zahartu zenean, burua erabat galduta, hitz egiteari utzi zion. Tuberkulu bat. Eta hala ere, etxe hartan izandako itzalak mehatxatuko balitu bezala zaindu zuten hil artean. Saioa txikitatik harritzen zuen amaren sakrifizio ahalmenak.

Aitak maleta logelara eramaten lagundu dio. Ama atzetik joan zaio, sukaldeko zapia amantaletik zintzilik, eta Saioa ohartu da Londonetik

lehen aldiz etorri zenean ekarritako belarritakoak daramatzala jantzirik.

– Zer moduz reflexologia ikastaroa? –galdetu dio aitorpen eske, aitak bakarrik utzi dituenean.

Amari, asaldatzen den guztietan bezala, ezpainak mokortu zaizkio:

– Ixo, ume, hauek ez dakite ezer eta.

– Oraindik ez? Eta nork eramaten zaitu Zarautzera?

– Aitak. Masajea hartzera eramaten nauela pentsatzen du.

– Esaiozu nire opari bat izan zela, nik ordaindu nuela ikastaroa.

– Belarriko minekin jarraitzen al duzu?

– Urtaro aldaketa bakoitzeko.

– Hori sendatzen ere ikasi dugu.

Gero atea itxi du eta Saioa bakarrik gelditu da. Animaliak bezala mugitzen da ama: zehaztasunez, baina zaratarik atera gabe; geisha baten antza du: zurbila, irribera, adeitsua. Logelatik aberearen pulunpak entzuten dira oraindik.

Saioak beharrezkoak dituen puskak baizik ez ditu atera maletatik. Aitona bertan aurkitu zuten bakailaoa bezala gogorturik. Amak eta berak aurkitu zuten. Ogi kozkor bat zuen esku artean eta ahoa zabalik.

Ez da bere arrastorik gelditzen logelan.

Amak aitonaren ondoan egiten zuen lo, oxigenorik gabe gelditzen zenean ito ez zedin. *Itota hil ez dadin* esaten zuen beti amak, etxe hartan heriotzaz hitz egiteko zeukaten soltura paregabearekin. Orain plastikoan bilduta dago ohe hori. Saioak ez du inoiz jakin zenbat denboraz egon zen begira, baina greba zela-eta ikastolara joan gabe gelditu zen egun batean, ama katuak bezala hurbildu zen gela hartara, orain bezala, eta zaharrari sudurra estaltzen aurkitu zuen Saioa. *Utziozu* esan zion, larritasunik azaldu gabe. *Utziozu*, ahotsa jaso gabe. Ez zuten afera sekula berriro aipatu. Handik urtebetera edo hil zen zaharra, eta ama-alabek maindire bat tolesten den zeremonia faltaz preparatu zuten hobirako.

Elkarri eskua emanda egon ziren tanatorioan, eskuak lotuta, elkarri kemena emanez bezala bi-

zitza berri bati ekin behar dioten ezkonberrien antzera.

– Erdiarekin ere nahikoa genuen –xuxurlatu zion amak alabari irriz.

Hankak falta ez zituen gizon baten tamainakoa zen kutxa.

Saioak ezin du lorik egin. Mesanotxean jaunartzeko argazkia jarri du norbaitek: txirikorda bik zedarritzen diote aurpegia eta lore zuriak ditu buru gainean. Kabitzen ez zitzaion eraztun baten erruz hanpaturik ikusten zaio hatza. Egun hartan amak organo bat oparitu zion, eta Saioak agindu zion beretzako abesti bat jotzen ikasiko zuela. *Bésame mucho* izan zen, apaizak erakutsi zion, katixima eta gero. Gizonak aurrean ez zeudenean jotzen zuen Saioak, ama dantzatzen ikusteko. Gizonen aurrean zoriontsu agertzeko eskubidea izango ez balute bezala.

Ondoko gelatik osabaren txiza txorrota plastikozko pixontziaren kontra entzuten da, jarraian karkaxa bat eta goizaldeko oilarraren kantuarekin elkartu den zurrunga.

Bazkalorduan jaiki da Saioa, amak kaska egin duenean.

– Joan al dira gaztainetara?

– Bai, goizean goiz. Iristear egongo dira –poliziaren zain egongo balitz bezain erne belarria–. Hor dira, aditzen?

Saioak esne botila hartu du hozkailutik. Sojarenera ohitua, harridura eragin dio benetako behi esnea zintzurretik behera sentitzeak.

– Azkenean jantzi dituzu oparitu nizkizun belarritakoak.

– Kosta zait, baina orain ez ditut kentzen.

– Aitak zeozer esan al zizun?

Amak belarritakoak laztandu ditu.

– Kaldererotara ote nindoan.

– Ez al zizuten alergia ematen?

Indian egindako belarritakoak dira, zilarrezkoak. Ordura arte belarritako pare bakarra zuen amak, urrezkoa. Oparia egin zion garaian, Saioak amaren mundu murritz eta kamutsari leihoak zabaldu nahi zizkion.

– Zer moduz zaude?

– A ze galdera, neska. Nola nahi duzu ba egotea?

Senarra eta anaia inguruan zebiltzanean, amari galderak erantzun gabe erantzuteko trebetasuna azaleratzen zitzaion.

Osabak errafiazko zaku bat gaztaina ekarri du.

– Bost bat kilo.

Amak eskukada bat hartu du itxura begiratzeko, triku momifikatuak dirudite. Saioari goroldio usaina etorri zaio, orain bai, etxean da.

Gizonek lepoaren inguruan lotuta dute ahozapia. Bazkaltzen duten bitartean ez dute apenas hitzik egiten, elikagaietan eta horiek sabeleratzeko egin beharreko mugimenduetan soilik jarria balituzte bezala gogoa eta indarra.

– Elurra datorrela esan dute irratian –esan du Saioak.

– Bazkalostean egur egin behar dinagu –esan du aitak. Leihotik begira dago. Ez ditu inoiz bereizi aginduak eta laguntza eskeak.

– Elur erauntsia –gaineratu du osabak.

– Ikusi al duzu Jauregi Zaharrarekin egin dutena? Zuri gustatuko zaizu –ama iseka airez ari zaio Saioari. Aita-osabak agertu bezain pronto

haien arauetara makurtzen dira ama-alabak oharkabean.

– Atzo erakutsi zidan aitak. Nahiago nuen lehen bezala, egia esateko.

– Babes ofizialeko etxeak egin behar ditizten. Zarauztarrak etorriko ditun bizitzera eta herria modernizatu beharra zagon.

Osabak ogiaren koxkorraz fideo eta oilar soberakinak ahoratu eta amari eman dio platera. Honek labekoa zerbitzatu du, senarrari, anaiari, alabari, eta azkenik bere buruari. Akuri erre bana.

– Ez al duzu izena eman behar? –galdetu dio amak.

Saioak bakarka hitz egiteko gaia iritzi dio, baina hala ere erantzun du:

– Denda biologiko baten arduraduna naiz Londonen, ama, oraingoz han gelditzeko asmoa daukat. Gainera, etxea musutruk daukat eta diru dexente ari naiz aurrezten –saihets ttipietan hondoratu ditu sardexka eta labana.

– Hori ongi dago.

– Dirua ez zagon inoiz soberan.

– Ingelesa hobeto ikasi nahi dut. Erdara baino hobeto hitz egiten dut kasik!

– Erdaraz primeran egiten dun ba hik! –esan du aitak amari begira, eta platerean pilatutako akuria hezurtxoak mahaiaren erdian utzi ditu, pila handiago batean.

Osabaren begiek mahaiaren bestaldetik traba egin diotenean, hozkailutik flan pakete bat atera eta mahaian ipini du Saioak. Aitak, osabak eta amak platerari buelta eman diote eta gainean isuri dute flana. Zoparako erabilitako koilararekin jan dute.

– Zure aita datorren urtean da erretiratzekoa. Londonera joango garela agindu dit.

Aitak ez du imintziorik txikiena ere egin, baina Saioak badaki lotsaturik dagoela.

– Bai ala? –zirikatu du.

– Joan beharko –eta gerrikoa koska bat nasaituta, ogi papurrak galtzetatik astindu eta siesta egitera igo da. Saioari zahartu egin dela iruditu zaio.

– Eta zu, osaba?

– Ni ez naun katxarro horietako batean sekula santan igoko –eta sagar bat zuritu du, sagar

asko zuritu dituenaren iaiotasunez, eta labanarekin lagunduta isiltasun erabatekoan jan eta gero, bera ere siesta egitera joan da.

Saioa eta ama harrikoa egiten gelditu dira. Edozein etxetan bizi izan dela ere, Saioa beti egon izan da prest harrikoa egiteko, aitzakia eta xextra guztietatik urrun. Ez du inoiz konpartitu jendearen nagikeria ontziak garbitzeko, beretzat harrikoa beti izan da une intimo eta gozoa, etxean amak eta berak egin dutelako beti agian.

– Nahi baduzu goazen zure gelara eta reflexologia pixka bat egingo dizut. Ea belarri horiek sendatzen ditugun.

Ohean etzanda Saioa, amak galtzerdiak erantzi dizkio eta oinak bere izter gainean ipini ditu. Saioak amantalaren hezea nabari dezake orkatiletan. Amaren eskuak mamitsuak dira eta okinak orea nola maneiatzen ditu Saioaren oinak.

– Zer moduz bizi zara?

Behatz txikerrak indarrez estutu dizkio:

– Hemen daude belarriko min horiek, horregatik egiten dizu min estutzen zarenean.

– Eta zer moduz zaude orduan?

– Zenbatetan galdetu behar duzu! Ondo, esan dizut.

– Badakit zer esan duzun.

Isilik gelditu dira eta Saioak tristura gozo bat nabaritu dio aurpegian.

– Opari bat ekarri dizut.

Maletatik koloretako paperetan bildutako kutxa atera du. Amak belarri parean jarri eta astindu egin du.

– Zintzarri hotsa dauka!

Saioak barre egin du, ama ume bilakatuta ikusteak zirrara eragiten dio.

Papera kontu handiz kendu eta ohe gainean utzi du, tolestuta. Kutxa zabaldu eta edukia esku ahurrean erortzen utzi du: soka batez lotutako golf tamainako bola bi.

– Txinatar bolak deitzen dira –erantzun dio Saioak amaren galderak egin gabe galderak egiteko moduari.

Saioak bakarrik utzi du ama. Korridoretik aita-osaben zurrungak heltzen dira. Sukaldetik Juan Carlos Irizarren kantu bat, jendeak nahi duen abestia eskatzen duen saio horietako bat.

Gaztaina eskukada bat jarri du egosten, anisarekin.

Bitartean, aizkora txiki bat hartuta, egurra egin du gauerako. Izerdia botatzeak on egiten dio.

Usainak

Astelehena da eta emazteak bederatzietan esnatzeko eskatu dio. Sehaska logelatik atera eta umeari begira gelditu da Martin. Lodia eta gorria da. Itolarria sentitu du eta leihoak zabaldu ditu. Orduan hasi da. Leihoak zabaldu eta usain batek barrenak irauli dizkionean. Ezinezko horren bila behartu du sudurra, ezinezko usain horren iturburuaren bila, baina simaurraren mingotsak, behiaren zintzarriek, umearen negarrek lausotu dizkiote oroitzapenak. Autoan etorri zaio berriro, eta ez dago dudarik: Ireneren usaina da. Kable, zarata, liburu zahar, herdoil, hauts, gasolina usaina. Trikota usnatu du antsiaz, alboan duen jaka, kolkoa, baina leungailuak desioa itzali dio.

Irenek metroa hartzen du goizero okindegian lan egiten duenetik, hiria amaitzen den tokian. Poltsan eraman ohi duen liburua belaunen gainean jartzen du norbaitek berarekin hitz egin nahi duela sumatzen duenetan, eta sinopsia edo biografia irakurtzen du. Hiriaren tripak joaten ikusten ditu eserlekutik. Goizeko zazpietan pilu-

len eraginarena beste ezerena izan ezin daitekeen andrearen sinpatia oldetik babestu nahian magalera atera du *Bikoteen bakartasuna* liburua, baina ez da hitzak ulertzeko gai. Asfalto eta burdinazko gibel, heste, bare, giltzurrunei so eginez aurkitu du gotorlekua.

Irene bizi den hirian ere astelehena da.

Urtebete hara joan gabe. Ezagutzen duen kale, plaza, izkina bat telebistan ikusi izan duenero zimiko egin dio hiriak Martini. Irene berehala ahaztuko zuela sinetsita zegoen. Eta orain haren usaina, itzulera behartu hori, ahanzturaren usaina autoan, nahiz eta erreka firrindan, nahiz eta txarrantxan preso den artilearen kulunka, nahiz eta ezkila hotsak. Saiatu da izen bat jartzen, eta ohartu usainek ez dutela izenik, ez bada zeharkakoren bat. Kasu honetan Irene, zein bestela.

Bagoitik irtetean aurreko bagoian sartzen ikusi du Martin. Sosegu hori ezin da izan hirian bizi den norbaitena. Pausoa arindu du korri egitera ausartu gabe, eta Martinen printza batzuk ikusi ditu: kopeta geroz eta zelaiagoa, betaurreko finak, jakaren hegala, bekain sarriak. Ateak

ixtearekin bat aienatu da. Gero burdinaren karranka, berbaroa, Irene liburuari besarkaturik, eskailera mekanikoek igo dezaten uzten. Eta bere baitarako dio, Martin bazen ere ez dela deus gertatzen, bere buruari superbibentzia eskolak ematen ariko balitzaio bezala: deus ez.

Bulegora iritsitakoan bafada batek kolpatu du Martin.

– Usaintzen duzu? Zer da?

Telefonistak sudur zuloak zabaldu ditu, harrera-gelan ibili da, eta deliberatu du:

– Labanda.

– Gurin usaina hartzen diot ba nik!

Martinek bilerara deitu ditu komertzialak. Luze jo du eta, urduri jartzen den guztietan bezala, betaurrekoen kristalak etengabe garbitzen aritu da Martin. Ogi konjelatuen salmenta eremua zabaltzeko estrategiaren bigarren partea eztabaidatzen ari dira, kasu honetan *one to one*-a ez dela egokia iritzi dio saltzaile beteranoenak, eta denak gelditu dira Martin saltzaile zenean itzala eman zioneko sugarraren zain: saltzaileen buruari aurre egiteko zuen kemena, buruargitasuna, konplejurik eza. Martin ordea nokeaturik

dago, Irene du sudur zuloetan sartuta eta ez da gai haratago joateko.

– Film mutu bat ikusi nahiko nuke –esan dio Irenek nobioari tabernan elkartu direnean.

– Mutua izan behar du?

– Gaur ez dut hitz egiteko gogorik.

Goizean ogi labekada bat erre zaio alarma jartzea ahaztuta, eta nagusiak manatuak egitera bidali du. Urgentzietarako besterik ez zen telefonora hots egingo balio? *Behar-beharrezkoa bada baino ez deitu; nire bizitzara itzuli beharra daukat orain*. Hirian zara? Baina erokeria iruditu zaio, eta legamiaz zikindutako sakelakoa garbitu du amantalaren ertzaz. Zer ote da behar-beharrezkoa?

– Film mutu bat ikusi nahi dut –esango dio nobioari lanetik irtendakoan.

Irenek egunkaria zabaldu eta atzamarra karteldegiaren gainetik pasa du.

– Ez dago ezer, inoiz ez dago ezer, inoiz ez da ezer gertatzen hiri honetan.

– Garagardo bat edango duzu?

– Ez. Goazen bideoklubera.

Baba atera zaio eskuan, goizeko erreduran, eta barneko urarekin ibili da jolasean, min egiteraino zanpatzen.

– Utzi hori bakean, bakarrik joango zaizu.

Baina Irenek, baba lehertu edo Martin ikusi, ez du besterik nahi.

– Buster Keatonen bat?

– Drama bat hobe.

Nobioa filma ordaintzen ari dela, Martin zebra-bidea zeharkatzen ikustea iruditu zaio berriz ere Ireneri. Ibilera hori. Garondoa. Irten orduko badaki zebra bidean doana ez dela Martin, eta hala ere atzetik joan zaio, geroz eta arinago. Egunkariak zirimolan, Martin ez den gizona etorbidea gurutzatzen eta bera gizonari segika.

– Nor uste zenuen zela, ero hori?

Metroan, Irenek hitz batzuk jaurtiki dizkio nobioari habailaz, hurrengo geltokian Martin igo eta berarekin eseriko delako agian, aukera suizida horri helduta, nobioa galdu baino ordezkatu dezakeelako umorez.

Nanouk eskimala ikusi dute. Mutilak komedia batekin bezala egin du barre, batez ere Nanoukek izokinak arrantzatu eta, pozarren, buruan

hozka eginez akabatu ostean algaraka ikusi zaionean. Irenek oso adi jarraitu du filma, ulertu egin nahi du nolakoa izan daitekeen egunero eta egun osoz zuria baizik ikusten ez duen norbaiten gogoa, zuria eguna eta gaua, zerua eta lurra, sua eta ilargia. Amaieran negar egin du, dokumentala egin eta bi urtera Nanouk hil egin zela jakindakoan.

– Ezin duzu negar egin duela 70 urte hil den norbaitengatik.

Gonazpian sartu dio eskua malkoak xukatu dituenean, baina Irenek hankak gurutzatu ditu eta sofaren ertz-ertzean eseri da. Entziklopedian irakurri du non dagoen Hudsongo Badia, bertara bizitzera joan nahi duenaren irrikaz.

«Salmenta Taldearen Zuzendaritza» ikastaroa egitera joan zenean ikusi zuen azkenekoz. Ordurako Martinek bazekien emaztea haurdun zegoela.

– Zure profila da egokiena, baina apur bat zizelkatuko zaitugu oraindik –eta menderatu beharreko gai zerrenda luzatu zion nagusiak, gari izpi bat inprimaturik zuten orrietan–. Hauxe ikasi behar duzu... eta «Negozioetarako ingelesa».

Irene, Martin klasetik irten zain egoten zen atean, kristalean bere begiratua harrapatzera jolastuz, hotzak gorritutako sudurra hatsarekin epelduz. Martin beti irteten zen puntuan. Irenek bi opil egin berri ekartzen zituen paperean bilduta, eta metrorako bidean jaten zituzten, hoztu aurretik. Bikote bat gehiago zen hiri hartan, eta euren bikotekideekin ez zituzten manerak hartzen zituzten elkartzen zirenean. Zaila zen ezaguna zen inork ikustea, baina jendea barrandatzen irudikatzea gustatzen zitzaien, eta deskubrituak izatearen aukera txiki haren mugen kontra ibiltzen ziren, boxeolariak ringaren sokekin nola, destinuak beraien izenean erabaki zezan bideak zabalduz. Hotelean maindireak ez aldatzeko eskatu zuten lehen egunean. Lau gau emango zituzten bertan.

Martinek squash partida bat jokatu du anaiarekin, lasaitu egin beharra dauka. Motxila zabaltzean, gasolina bafada batek hartu dio sudurra, eztarria. Saunan etzan da haragia parrillan jartzen den bezala, eta lepoa behartuz, zakilaren uzkurtze geldoari begiratu dio zimur mulko bilakatu den arte. Gasolina eta ke usainak betetzen

dute azulejuzko gela; Martin anaiarengana jiratu da erantzun eske, baina honek bekainak jaso ditu eta luzamendu batzuk egin. Martinek ezkon-eraztuna estutu du, biraka ibili du hatzaren kora-pilotik gertu. Aldagelarako bidean gerri inguruan jarri du toalla, arnasa hartu du sakon, auto usaina, metroaren hatsa, gurpil errea. Zintz egin du ostera toalla mutur batekin, eta zuria belztuta azaldu zaio, smog.

Larrua jo ondoren, bakarrik uzteko eskatu dio Irenek. Afari azkarra prestatu dio nobioari, hura ere azkar joateko. Zigarro bat erre du. Sukaldeko azulejuak lurruntzen ikusi ditu. Ganduaren pean pasearazi du gogoa, nolakoa izango ote den zuria baino ikusten ez duenaren bizitza, nolakoa izango ote zen bera Martini hirira bizitzera etortzeko eskatu izan balio.

– Lotan da umea.

– Nekatuta nago –esan du Martinek.

– Azken ahalegin bat egiteko bezainbat? –galdegin dio emazteak konketaren kontra setiatuz.

Polita da, baina asteburuetan marmelada egiten edo hegaluzea poteetan sartzen dutenen aurpegia jarri zaiola iruditzen zaio Martini. Emaz-

teak zirritua zabaldu eta zakila atera dio. Zintzilik du, hotz. Jiratu da eta emazteari iletik egin dio tira, txabusinaren kontra igurtzika hasi da, burua hondoratu du andrearen adats aratz xanpu usainekoetan, eta Martini ume hil gelditu zaio. Nahiago du gazteagoak zireneko zabarkeria, maindire hezeak, zigarro usaina. Baina umea jaio zenetik etxean desinfekzioa da nagusi. Atzera egin du, xanpu usainaren ordez gantza usnatu nahi izan dio. Belarri zuloa miazkatu dionean lortu du: nerabe usain hori. Emaztea zabaldu du atzetik, sabaira begiratzera behartuz, betebeharra burutu du.

Nobioak gibeletik hartu du Irene, biguna gizentzen hasia. Garondoa hozkatu dio eta zigarroa erauzi. Irenek, hazita dagoen gizon bat bere kontra estutzen den guztietan bezala, pistola baten mehatxua sentitu du gibelean eta, altxa besoak, amore eman du lapurretaren aurrean. Marmolezko mahai gainera lerratu da, hankazabalik. Mutilak bazterrera egin dio kuleroa eta gorrian pulunpatu da.

Martinek mihiaz zabaldu dio ebakia:

– Etorri behar zaizu?

– Zer.

– Hilekoa.

– Ez.

Eta erreka gezaren ordez itsasoak busti dizkio sudur mingainak, eta orduan bai, ume hila hasi da harrotzen, ubeltzen eta aldarrikatzen, itsaso beltzaren erdian.

– Zoaz, maitea –agindu dio Irenek txio arin batez mutilari. Sukaldeko paperarekin odola garbitu eta konpresa bat ipini du. Googlen Martinen izen-abizenak sakatu ditu: katakume pertsiarrak saltzen dituen zahar bat katakumez inguraturik, eskolarteko olinpiadak irabazitako korrikalari bat helmugara iristen, Argentinako koktel lehiaketan bigarren egindako gazte bat surf-alkandora soinean. Leihora irten da, etorriko ez den arren etortzea nahi denaren zain egoteak sortzen duen tonteriarekin.

Bazekiten azken aldia izango zena. Umea etorriko zen gainera. Dena ondo joanez gero zazpi hilabeteren buruan, eta lana, kargu aldaketa... Irenek ere bertako mutil bat ezagutu berri zuen. Martinek eta Irenek galera gertatu aurreko

min gozoa probesten jakin zuten, mina irrika bilakatuz.

– Arraroa da dena, agian ez dugu inoiz berriro elkar ikusiko, eta hala ere, ezkonberrietara ari gara jolasean.

– Urte batzuk barru abesti bat edo usain bat baizik ez gara izango bata bestearentzat.

Martin ohean sartu da. Emazteari darion Ireneren gantz usainarekin leloturik leihora irten da. Belar, lur, gorotzaren ordez, gasolioa, kedarra, buxadura usaina. Ezkila kolpe bakoitzak zizelkatu du idatziko duen oharra. Bizilagunaren zakurraren zaunkak jarri dio amaiera. Etxetik joango dena ez dela gaur egungo Martin, umea jaio aurretikoa baizik, eta barkatzeko. Bariazio batzuk egin ditu, ez gorrotatzeko, ez itxaroteko, ez barkatzeko. Maite duela, estimatzen duela, emakume ona, otzana, garbia, azkarra dela.

Sehaskara hurbildu da eta umeari begira gelditu zaio. Anaiak esan dio handitu ahala edertu egiten direla.

– Zertan ari zara? Itxi leihoa, hotzak nago.

– Barkatu –esan dio Martinek.

– Eta ekarri ura, mesedez.

Martinek korridorea zeharkatu du sukalderaino, sehaska eramanez. Umearen gelako horman lanpara kaleidoskopikotik irtendako arrain eta itsas-belarrak.

– Ez da esnatu? –galdetu dio emazteak.

Bizitza behin baino gertatzen ez dela, norbait hobea aurkituko duela, dutela, azken finean polita izan dela, eta baietz, bestea bera baino gazteagoa dela, hogeita sei urte ditu eta Irene du izena. Martinek gerritik heldu dio emazteari. Hatzekin aldaketako estriak ferekatu dizkio. Gantz usainaren ordez betiko xanpu usainak bildu eta ahoan zuen itsasoa ere desagertu zaio. Soilik emaztea eta bera dira, ohean sarturik.

– Bihar pediatrarenera eraman behar gaituzu.

Irenek mutilari telefonatu dio:

– DVDa hemen utzi duzu, eta nik bihar ezingo dut itzuli.

– Erdibana egingo dugu.

– Itzul zaitez eta bihar goizean eraman.

– Ez, nik ordainduko dut isuna, lasai, metrora sartzekotan naiz.

Haize kolpe batek gortinak haizatu ditu eta maratilatik zintzilik dagoen mugikariaren hots metalikoa entzun da. Martinek lur usaina aditu du ohetik, ardien ile zikin gazia, maindireetako detergentea.

Geldituko dena, joango ez dena, ez da Irenerekin maitemindu zen hura, gaur egungo Martin hau baizik.

Emaztea jiratu egin da eta aurrez aurre jarri zaio iluntasun zurixkan.

– Zergatik galdetu didazu hilekoarena?

– Iruditu egin zait.

– Bihar esan nahi nizun, froga egin eta gero, baina uste dut haurdun nagoela.

– Ez da posible, esan zenidan bularra eman bitartean ezin zinela haurdun gelditu...

– Nik ere hala uste nuen.

Martinek gorputz zartatzen hasian sakondu ditu hatzak, harremanaren adina neurtzeko balio duten zuhaitzaren eraztunak.

– Ez duzu ezer esan behar ala?

Eta zenbatu egin ditu arrailak, zazpi, lehen aldiz oheratu zirenetik iragan diren urteak.

Tekla bat

Anak bizitzan noizbait Santiago bidea egin izanaren itxura dauka, argala, ilea inoiz tindatu gabea, aurreztailea. Bero denean kalamuz edo zuntz naturalez egindako arropak janztea maite du, nahiz eta zabalegiak izan eta Joakini zereal zakua iruditu. Joakinek estetika garaikideagoa maite du eta surf dendetan erosi ohi ditu jantziak. Habeak agerrarazi zizkioten Alde Zaharreko etxetxo batean bizi dira, landa estilokoa da eta parpailetan lehertzen diren errezelek ezkutatzen dute bikotearen barne bizitza. Lana etxetik egiten duenetik, Anari itogarriak zaizkio etxearen iluntasuna eta hezetasuna. Etxez aldatu beharra dutela esan dio Joakini, eta honek arrazoia eman dio buruaz, bokarta baten isatsa ahotik ihesi.

– Lehenbailehen izan behar du, Joakin, ez dakizu zer den eguna hemen sarturik ematea.

Joakinek gazteagoa zeneko bidaietatik ekarritako arku eta gezi bilduma egongelako hormetan du zintzilik. Apal baten gainean pipa bilduma

bat, maskarak, notarik inoiz atera gabeko musika tresnak.

– Eta zer egingo dugu nik egindako apalategiarekin? Hilabeteko lana eman zidan.

– Hormatik askatu eta etxe berrian ipini.

– Neurrira eginda dago, ezinezkoa da. Apalategi horri egokitzen zaion etxe bat bilatu beharko dugu.

Anak web orriak diseinatzen ditu, lore asko marrazten dizkie beti, trazu lodikoak, kolore askotarikoak. Joakini ez zaizkio gustatzen, lore eta kolore gehiegi dituztelako beti. Anak ere ez dio Joakinen lanari erreparatzen, aluminiozko leihoak egiten dituen enpresa batean zazpigarren urtea du. Lan harremanez eta lan baldintzez, horretaz hitz egiten dute.

– Jai patronala kendu nahi digute, eta inor ez da kexatu, denek mailuari eman eta eman jarraitu dute.

– Eta zer egin duzu zuk?

– Silikona makinan ari nintzen. Makina hori ezin da bakarrik utzi, sekulako deskalabroa egin dezake bi minutuz abandonatuz gero.

– Hemendik joan beharra dugu, Joakin. Ez dago argitasunik, ez al zara ohartzen?

Joakinek errezelak bildu ditu eskuaz, eta xingola bat eskuan duela esan dio Anari, nahi badu berak jarriko diola errezelarentzako kakoa.

– Urtebete daramazu gauza bera agintzen. Orain ez hartu lanik, datorrenak egin dezala.

Joakinek erreminta kaxan bilatu du, hautsez-taturik da. Minutu gutxiren buruan kakoa josi du. Ez daki zergatik ez dituen etxeko lanak maizago egiten, gizonago sentiarazten dute, erosa biziberritzen diote, baina ez da ausartu Anarengana hurbiltzen, nahiz eta bizkarrez dagoen: mantalaren lokarriak silueta edertzen dio, eta hala ere ez da ausartu, ez du oreka apurtu nahi.

Ana harrikoa egiten ari da, ezkon-eraztuna harriaren gainean utzita. Asteburuetan lagunekin irteteari utzi zion Joakinekin *gauzak* egite aldera. Horren ordainetan, Joakinen sakrifizioa neguan eskiatzera joateari uztea izan zen, Anarekin *denbora* gehiago egoteko. Orain, Joakinek eta Anak erruz dituzte gauzak eta denbora.

– Bihar beste pisu bat ikusteko lotu naiz, laugarren solairuan dagoen bat.

– Ez ahaztu begiratzen apalategia jartzeko izkinarik ba ote duen. Hilabete eta erdiko lana eman zidan. Eguraldiaren arabera min egiten didan ezpal bat dut oraindik esku ahurrean –eta hortzak esku ahurrera eraman ditu.

Emakume Gazte eta Ekintzaileak enpresatik eskatu dioten web orrian lanean eman du eguna Anak. Amaitu du lehen zirriborroa. Etxean jarri die hitzordua bezeroei, bertatik bertarako harremana izatea da bere lanaren ezaugarrietako bat. Etorri zaizkio bi emakume, bat gazte kalparduna, bestea eguzkiak maizturiko ilegorria. Egindako lana erakutsi die Anak eta ilegorriak xamurtasuna galdu gabe esan dio kolore eta lore gehiegi dituela web orriak. Anari iruditu zaio ilegorriari plazera eman diola ohartarazpen hori egiteak.

– Horren sinpatikoa ez den zerbait nahiko genuke, ezta? –galdetu dio gazteak helduari–. Gu ez baikara emakume sinpatikoak, ezta?

– Ez dakit zer nahi dugun, baina topatuko duzu, Ana, ziur naiz.

– Etxe argitsuago bat ari naiz bilatzen, hemen ezin da lanik egin –esan du Anak, emaku-

meen naturaltasunak bere onetik aterata–. Egun osoa ematen dut hemen sartuta.

Etxea urrutiko auzune bateko magalean da. Jabeak sasizko bekainak ditu, orbel koloreko adats eta bizarra, koadrodun alkandora. Anak pentsatu du baso bat dirudiela gizonak. Etxea erakutsi dio. Egongelan piano bat dago. Egunkari hilak ditu gainean eta argazki bat, eta bertan irribarre izoztuko emakume bat eta bi nerabe. Gizonak tekla bati sakatu dio, Anak galdetu dio jotzen ote dakien.

– Teklak banaka jotzen bai. Semearena zen, orain ez dira hemen bizi.

Anak errezelak bildu ditu eta gizona argiturik ikusi du, ostarteko zuhaitza dirudi oihan laiotzaren erdian.

– Gustuko duzu? –galdegin dio gizonak.

– Argiz beterik dago, logela ere argiz beterik dago.

– Zergatik nahi duzu etxez aldatu?

– Kosta egiten zait nire etxean sartzea.

– Agian arazoa ez da etxea.

Ana gorritu egin da, egia inozo horrekin harrituta.

– Agian, baina heldulekuak beharrezkoak izaten dira, eta esperantza helduleku bat da.

Joakin isiltasunaz jabetu da etxerakoan. Ordenagailuaren gelan zerbait falta da: ordenagailua. Konketa gainean zerbait falta da: krema eta edergailuak. Etxean zerbait falta da: Ana. Sukaldeko mahai gainean ohar bat: «Bilatzen ari nintzena aurkitu dut azkenean». Jarraian helbide bat eta paperaren izkinetan lore koloretsuak.

Joakinek autoa hartu du azkarrago iristeko. Oinezko bati galdetu eta kalea erakutsi dio. Papera begiratu du atzera, laugarren pisua, loretxo bat. Txirrina jo eta Anak zabaldu du, betiko txabusina saretua soinean.

– Ez zaitez haserretu. Honek ez du gure harremanarekin zerikusirik.

Joakin sarreran gelditu da. Anak pasatzeko esan dio, mesedez, etxea erakustearren.

– Ezkerreko gelan ordenagailua eta nire trasteak. Eskuineko hau gure logela da –eta *gure*

esatean mingaina oraindik beroegi dagoen hitzarekin erre zaio. Ohea deseginda, Joakinek lurrean dauden Anaren arropa bizigabeei begiratu die–. Gela hau hutsik dago, Ramonen seme-alabena zen –jarraitu du Anak, baina ez du atea zabaldu–. Eta hemen egongela eta sukaldea –amaitu du, txisteratik untxia atera duen mago hasiberriaren antzera.

Sukaldeko mahai gainean bi plater, botila bat ardo eta kandelak. Baso itxurako gizona amantala jantzita, burruntzalia jaso du Joakini agur egiteko. Musugorriturik da eta zaharragoa dirudi gauez.

– Nire senarra, Joakin –aurkeztu du Anak, irribera.

Gizonak amantala eranztearen imintzioa egin du. Joakin gizonarengana abiatu da, lokiko zaina gizenduta, eskuak ukabilduta. Ana tartean paratu da, eskuak jaso ditu, altoa emanez.

Baso itxurako gizona ardoaren etiketari begira gelditu da, lasai antzean. Anak hosto itxurako adatsetan murgildu dizkio eskuak, beldurrez hasieran, sakonago ondoren. Jarraian bere magalean jesarri da, jaki ketsuen aurrean. Joakini be-

gira gelditu dira, gatz bila etorritako bizilagun astunaren antzera sentiarazi arte. Joakinek lorontzi bat lehertu du pianoaren aurka. Ondoren burruntzalia telebistaren kontra. Anari begira gelditu da, honek labana eta sardexka esku banatan jarraitu du. Atea zabalik utzita irten da etxetik Joakin. Anak zapi batez sikatu du piano gaineko ur putzua.

– Zaharra zen telebista, ez zaitez ardura.

Ramonek ardoa ireki eta sudurrera hurreratu du. Anak Joakinen Golfaren motor hotsa entzun du.

– Hasieran iruditu zaidana baino gehiago entzuten da kaleko zarata.

– Lan egiteko arazorik sortuko al dizu?

Anak ardoa dastatu du.

– Ez dut uste.

Errautsa

Arrateri

Sufritzen duen gizaki oro da haragia.
ELISABETH DE FONTENAY

Aitona hil zenetik astean behin joaten zen amona Luciarenera. Halaxe adostu zuen Norak amarekin tanatorio atarian, errautsen epelean: Celso Peña Martín, falleció el día 27 de febrero de 2005, a los 89 años de edad. Maite zaitugu / te queremos.

Belarri erraldoiak, lur koloreko azala, gorreria irri karkailez disimulatzen zuen gizona eta bere txapela hauts eskukada bihurturik.

Gidariaren ondoko eserlekuan ipini zuten ontzia eta ama atzean eseri zen. «Sarriago joan beharra dago orain amona ikustera» esan zuen Norak hirugarren pertsonan, amaren aurrean beratzen zen aldiro bezala. Eta amak antzeko moldean erantzun zion: «Kasu gehiago egin beharko

zaio, bai». Noraren amak ez zuen inoiz hasperenerako tarterik hartzen, malkorako ere ez, eta irribarreak esaldiak biltzeko parentesiak ziren harentzat.

Lauburudun ontzia aukeratu zuen amak, eta apaizari esan zion hildakoaren akats larriena Burgosen jaiotzea izan zela, eta enterradore itxurako enterradoreari galdetu zion non ordaindu behar zuen, txartela onartzen ote zuten.

Astegunetan joaten zen amonarengana, arratsaldean, ile-apaindegian ordua zuenetan izan ezik. Nora jai egunetan. Urtebetez, iazko otsaileko azken egunetik hona.

Norak beheko txirrina jotzen zuen, hiru kolpe motz, igoko zela adierazteko, eta bere giltzez zabaltzen zuen atea. Txabusinaz agertzen zen amona Lucia, ezpainak margotu berri. Garbi usain kolpe batek hartzen zion barnea, eta arnasa hartu orduko gaziagoa, edo ustelagoa, edo ilunagoa zen zerbaitekin nahasten zen higiene fabrikatu hura, eta horregatik egiten zituen Norak arnas hartze laburrak amonaren etxean.

Senarra hil zitzaionetik kamustua zegoen. Ukabilaren antzekoa zuen aurpegia, ia begirik gabea, hazpegiak bata bestearen gainean metaturik, ile zuri trinkoa, kaioaren lumajea lakoa. Atea zabaldu eta argiak pizten zituen, eta ordura arte non egon ote zen galdetzen zion bere barruari Norak: «Gela guztiak zarraturik, ate ondoan kaio bihurturik jagonean egon ote da?». Arnasa labur hartu eta musu zaratatsua ematen zion egurastu gabeko emakumeari, eta sukaldera abiatzen ziren.

Bonbilla ekonomikoak indarra hartzen joan ahala amonaren diosal irriberak, urtebete baino lehenagokoa bailitzan. Eta hori baino ezinezkoagorik ez zegoen, urtebete lehenago aitona ondoan izango zukeen-eta sukaldeko mahaian, eta orduan inor ez zatekeen ikustera joango.

«Café, chocolate, fanta, coca-cola» esaten zuen amonak hondartzako freskagarri saltzaileak imitatuz. Eta bonbilla ekonomikoaren intsektua pausatzearekin bat, amona Luciaren ukabil aurpegia ere laxatu egiten zen. «Mañana va a hacer un año» esan zion Norari, eta eskuak igurtzi zituen, gorputzarekin alderatuta handie-

giak eta gazteegiak ziren eskuak zamau loredunaren gainean korapilaturik, bilobari begira, azalpen eske bezala, «un año».

Atsoa urez beteriko ontzia sutan jartzen ari zela, Norak gerrari buruz hitz egiteko eskatu zion. Bizkarrez ikusita, gotorleku bat zen Lucia, haragizko bunker bat. Ez zion erantzun, eta Norak grabagailua gelditu zuen. Azken saiakera egitera etorri zen, narrazio baterako dokumentazio minez.

«Qué quieres que te diga, que hacía chicharra, que hacía tanta chicharra que los gorriones caían muertos de las ramas, así, plop, como piedras», eta neskak errepikatzeko eskatu zion, grabagailua itzalia zuela. «Hoy no me nace» azkendu zuen atsoak, «otro día», eta bi antoxinetan isuri zuen ur beroa. Birentzako neurria ikasia zuen Luciak eta ez zen inoiz ekibokatzen.

Norak erlojuari begiratzen zion amonari hatsa eman nahi zion bitartean, gutxieneko ordubetea joan zain, esfera estutuz, uhala laztanduz. Ez zen neska friboloa eta beti izan zitzaizkion laket orrazdun erlojuak; denbora hori zela pentsatzen zuen, zarata apur bat, kinkila apur

bat... orratzak, mina, heriotza, egoera beraren hiru dimentsioak.

«Mañana va a hacer un año» esan zuen, galderaren erantzuna pentsatzeko ikasleari denbora gehiago eman nahi dion maistra bigunaren antzera. Norak esku bat ukitu zion hatz txikerraz, eta paseoan ibili al zen galdetu zion, artean aitona hilik egongo ez balitz bezala, eta hark «ez dut gogorik» ihardetsi, «dagoeneko ez dut ezertarako gogorik», dolu gabeko esaldi bat, hitzek beren berezko esanahia baizik ez dutenean hartutako bortizkeriaz. Hitz bortxatu gabeak ziren amonarenak, umeek lehen aldiz puta ebakitzen duteneko eztanda bera sortuz, ezein errietak, ezein argudiok estal ez ditzakeen zarata sortzen duten hitzak. Norak entzun ez izana nahiko luke.

Koadernoa atera zuen poltsatik, txoriei buruzkoa idazteko: «Caían muertos de las ramas, así, plop, como piedras». Nahiago zukeen gerrari buruzko kontuak entzun. Bizitza denborari probetxua ateratzea zela iritzita zegoen, eta narrazio erdi epiko bat josteko lagungarria izango zitzaion bide batez. Norarentzat, denborak bazuen esanahiren bat.

Grabagailuaren zama sentitu zuen poltsa jasotzean. Alde egiteko imintzioa egin zuen, aitzakia batekin. Haragiaren usteltzea usain zezakeela iruditu zitzaion. Errauts bilakatuko zen egunotako batean amona ere. Nork nahi du hezur ere ez den, haizeak eramango duen errauts meta izango den norbait laztandu, maitatu. Nork ahal du.

«Cuando voy a la compra, suelo ver a nuestra vecina Gloria en el secadero» esan zion amonak, kokotsaz seinalatuz egoitzaren norabidea. Ez zion sekula «nuestra» esateari utzi.

«Es un asilo, amona, el secadero es para los alcohólicos».

«He dicho secadero y he dicho bien. No hay más que verlo, ponen a los viejos al sol, para que se vayan secando».

Aitona Celsok halaxe esaten omen zuen behintzat. Seme-alabek Gloria etorbidetik paseatzera ateratzen zutenean, zaharrak «begira zein ondo doan markesa bere karroxan» esaten zion amonari. Aitona Celsoren ahotsa imitatuz esan zituen hitzok erdaraz, hain maisuki, Norari jauzi txiki bat eginarazi baitzion. «Menudo era el

viejo» esan zuen amona Luciak, eta neskak eskua bildu zion, sagar bat helduko lukeen gisan. «Gerrako kontuak esan behar dizkidazu, amona, hurrengoan grabagailuan jaso behar ditut», baina amonak begi urdinduak eskaini zizkion, eta goizean erroskilak egin zituela beretzat, «hilabete osorako gutxienez», joan aurretik ez al zuen beste kafe bat hartu nahi.

Luciak mahaia bultzatu zuen gorputza aulkitik altxa ahal izateko, eta lorontziko plastikozko loreek dardaran jarraitu zuten Norak atea itxi bitartean. Atximurka egin zion masailean zaharrak, eta ahizpa baino alferragoa atera zela esan zion. Boxeolari batena izan zitekeen besarkadan bildu zuen, eta arnas txikia egin zuen ostera neskak.

Mp3a belarrietan, eskuak sueterraren poltsiko bakarrean sarturik, etorbide luzea zeharkatu zuen Norak, eta zaharren egoitzatik igaro zen, eta errekara begira jarri zituzten gizon-emakumeen siluetak antzeman zituen argikontran. Gaua zen eta ez zuten ezer ikusiko, farola baten argitan gelditutako zisneren bat eta ilargia baino ez. Ibilera dantzariko mutil gazte bat errenkada

osatuz zihoan, karroxetan zeuden zaharrak geometrikoki aparkatzen. Aitonarentzat markesa izan zitekeena bilatu zuen.

Ate ondoan utzitako erroskilez oroitu zen Nora, eta atzera ibili zuen bidea, poliki, amonarenera itzultzeko gogorik gabe, ilargiak zurituta-ko ihia laztanduz, mp3an Piazzollaren bandoneoia arnasestuka, malko mulkoak begi zokoetan, zahardadearen amoniako usaina eztarritik atera ezinik.

Beheko txirrina hiru bider jo, eskailerak binaka igo eta atea zabaldu zuen. Amona ez zuen kaio bihurturik zain. Lurrean atea zabaltzea oztopatzen zuen toalla batekin estropezu egin, usain metaliko bat sumatu eta sudurra eta ahoa estali zituen eskuaz.

Sukaldeko mahaian amonaren zirriborroa ikusi zuen atearen kristal horiztak lausoturik.

Betileekin kristala ukitzen nuela oroitzen dut, eta eskuin eskuaz sukaldeko maratilari oratu niola, izerdia, atea zabaltzeko behar besteko indarrik egin gabe. Lanbroturik, amona ikusi nuen,

mahai gainean metaturik. Eztultxoa ere egin zuen, suabe, burua apur bat jasoz.

Mahukaren ahoan muturra sartu izan arren, gasaren mozkorrak hartu ninduen. Toalla lehen zegoen tokian ipini nuen atzera, zorabiaturik. Erroskilak hartu, hotsik atera gabe atea itxi eta etorbidea zeharkatu nuen, mp3an Piazzollaren bandoneoia, *cul de sac* batean egon eta bertatik hegan atera nahiko lukeen tximeleta gizena, arnasa hartzeko txikiegi lituzkeen birikak hauspotuz bezala.

Zain gelditu nintzen, nire erlojuaren esferari eutsiz, zisne baten lepo ikarak soilik zuritzen zuen errekara begira. Ibilera dantzariko mutilaren silueta zaharren errenkada desegiten hasi zen. Supermerkatuan balego bezala eraman zituen karroxak. Erroskila bat jan nuen, anis hazi bat lehertu zitzaidan ahoan, amona Luciaren esku handiegiak irudikatu nituen forma ematen.

Sakelakora deitu zion amak. «Non zaude?». «Kalean». Negarrik gabe, zehaztasun milimetrikoz azaldu zizkion amak amona Luciaren etxeko-

ak. «Bizilagunak usaina sumatu eta udaltzainei deitzerako ordea beranduegi izan da». Nora, dolua adierazten ahalegindu zen. «Zatoz hona, elkarrekin afalduko dugu».

Erreka bazterrean egon zen pixka batean, mp3a gordeta, uraren hotsa aditzen.

Zakurra paseatzera irtendako gizon bat igaro zen aldamenetik, zigarroaren kearekin ahotikako lurruna lainotzen.

«Emango zenidake zigarro bat?».

Igande gau hartan hasi nintzen berriro erretzen.